



ZERAIN

Paisaia oinarritutako bizimodua

- **Jonan Fernandez:** «Kontzientziari entzuteko edo giza duintasunaren esanahia ulertzeko mugarekin bizi gara»
- **Net Hurbil** Stuxnet-ek darakus gerrako lubakiak Interneten daudela
- **Datuen babesa** Nola kudeatzen duen Administrazioak herritarron informazioa
- **Harrobia Zuzen** Musika talde hasiberriek atek zabalik Donostian

Asteburua opari!

Harpidedun,

Harpide berri bat ekartzen baduzu,
ondorengo nekazal etxe edo hotel
batean bi lagunentzako asteburua
oparituko dizugu:

- Atxurra Hotela **BERMEO**
- Zumalabe Hotela **MUTRIKU**
- Gametxo Hotela **IBARRANGELU**
- Oxangoiti Hotela Jauregia **LEKEITIO**
- Ellauri Hotela **ZEANURI**
- Guikuri Nekazal Turismoa **MURUA**
- Atxaspi Hotela **LESAKA**
- Saiaz Hotela **GETARIA**



Eta **harpide berriarentzat** ere
ARGIAko 2Gb-ko **MP3** irakurgailu/pendrive
esklusiboa
opari!



943 371 545



gunea@argia.com



www.argia.com/argialagunentzat.php



Azaleko argazkia:
ESTITXU EIZAGIRRE

Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagañia Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera >



gizarte
kutxa
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2010eko urriaren 17a, 2.248. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Dora Salazar:** «Gizonezko askok sekulako arazoak dauzkate emakumeen lanekin identifikatzeko». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Zerain:**
Paisaia kulturala auzolanean bizi. ESTITXU EIZAGIRRE / 5

Pertsonaia

- **Maria Pilar Lasarte:** «Tartean euskara bazen, bost axola zitzaizun gainerakoa». MIEL A. ELUSTONDO / 10

Gaiak

- **Datuen babesa administrazioan.** Bermaturik al dago konfidentzialtasuna? JON TORNER / 16

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Ttakun (h)errenka** Ilusio makinak. ANA URKIZA / 20
- **Atzekoz aurrera.** CARMEN VALOIS / 21
- **Hiruko txikian** Kataluniatik. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Pasaia,** Hondarribia, Euskal Herria. JOXERRA AIZPURUA / 22
- **Txandan** Esnatu. ANDONI MUJICA / 22
- **Zirtak** Musak. PATXI ZUBIZARRETA / 23
- **Bertso berriak** Gizon onaren bentajak. AITOR ALBISTUR / 24

Erdiko kaiera

- **Harrobia Zuzen.** Harribitxi berrienak, zuzenean. GORKA BEREZIARTUA / 25
- **Eduard Girbal Jaumeren** miraria. GORKA BEREZIARTUA / 29
- **Liburuak** XABIER ETXANIZ ERLE / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** UNAI BREA / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Jonan Fernandez:** «Espektatiba faltsuek desorientatuak bizi gara». MIKEL ASURMENDI / 39
- **Literatura Unibertsala bilduma.** Itzulpenak irakurle bila. MIREN IBARLUZEA / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Stuxnet-ek darakus gerrako lubakiak Interneten daudela. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **UPNren alde.** SANTI LEONE / 50



“Gizonezko askok sekulako arazoak dauzkate emakumeen lanekin identifikatzeko”

Dora Salazar

Borreroak mila aurpegi baldin baditu,
zenbat ote dauzka artistak?

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Nori inporta zaio artea?

Ez pentsa, ni ere askotan gehiago erakartzen nau kiroldegira edo hondartzara joateak museo batera sartzeak baino. Baina artea, gastronomia bezala, erlijio modukoa bihurtzen ari da.

Falta zena, erlijio zaharrak aski ez, eta berriak sortzen!

Ez zaizu iruditzen afari on ala erakusketa sujerente bat bezalako gauza txikiak mundu kaotiko honetatik salba gaitzaketela?

Artearen merkatu kaotikotik kritika batek salba zaitzakeela iruditzen zait niri.

Baina zer kritikak? Pentsa, askotan, ondo edo gaizki, eskaparatean egotea da kontua. Desagertutzat jotzen zaituzte bestela, baina ez zaio inori burutik pasatzen ni eskaparatean nagoenean ez naizela estudioan lanean ari.

Genero ikuspegia da batzuegandik desagertu dena...

Edo ez dena inoiz agertu! Gizonezko askok sekulako arazoak dauzkate emakumeen lanekin identifikatzeko. Emakumeok gizonezkoen lana baloratzeko euren larruan sartzeko ahalegina egin behar dugu, baina gizonezko askok ez dute egiten.

Inozoa ni, artearena mundu aurrerakoitzat neukan...

Emakumeen kasuan zehazten bada, gizonezko artisten erakusketa baten aurrean zergatik

ez du inork esaten gizonezkoak direla artista guztiak? Zertara dator tratatu desberdintasuna? Ez dugu azpi-sailkapenean egon nahi, testuinguru orokorrean baizik.

Badakizu, munduak eta gelako armairuak ordenatuta beti.

Ez dakit dena papilan ematen digutelako ez dakigun mastekatzen edo mastekatzen ez dakigulako ematen diguten dena papilan, baina elementuen arteko loturak guk egin behar genituzke sailkapenak eta ordenak hausteko beldurrik gabe.

Aspaldi esan zuen Lazkao Txikik artea ulertzen zuena zela artista!

Artea eta artearen merkatua bereiztea geroz eta zailagoa da, eta merkatua ukatzeak zentzurik ez izan arren, lotura eta sentsazioak gure baitan daude. Zer inporta du diskurtsoak, ikusten ari zarenak hunkitu bazaitu?

Artearen merkatua sentimenduek mugitzen dutela sinestea nahiko duzu, ezta?

Ekonomia eta politikaren menpe dagoen boterea iheskorra da, kontaktuz eta koiunturaz osatutakoa. Badakit batzuk egoeraz baliatu direlako daudela hor, baina sinesten dut, joerak joera, ondo egindako lanek beti izango dutela lekua.

Ez dakizu zenbat jende hiltzen den sinetsita!

Ni ere egunen batean hil egingo naiz, eta orduan, nire lana interesgarriagoa izango da! ■

Zerain

Paisaia kulturala auzolanean bizi

250 biztanle ditu Aizkorriren itzalpeko Zerain dotoreak. Noizbait bertaratuko zintuen hain ugariak dituen ekintza kulturalen batek, edo harro agertzen duen ondareak, edo ongi hornitutako azpiegitura eta zerbitzuek. Bestela negu hau izan dezakezu lehen aldia, paisaia oinarrituta Zerain osoa inguratzen duen ibilbide sarea zabalduko baita. Aurrekoengandik jasotako ondarea ustiatuz bertako ekonomia sortu du Zeraingo proiektuak (azken 13 urtean 34 lanpostu). Formula azaldu digu Jakoba Errekondok.

ESTITXU EIZAGIRRE

ZERAINGO PROIEKTUAREN gakoa auzolana da: “Auzolanari egun beste izen batzuk ematen zaizkio, ‘parte-hartzea’, ‘Agenda 21’... baina hori beti izan da auzolana. Hitz horren erabilera galdu dugu, auzolanaren premia galdu zelako garai batean: zergak ordaintzen hasi

ginenez, eta administrazioak diru pila bat zeukanenez eta gauzak egiteko joera, bada pentsatzen zen berak egin zitzala auzolanean egiten ziren guztiak ere” azaldu du Zerain Dezagun Fundazioko kide den Jakoba Errekondok. Ez zen Zerainen kasua izan, ordea: “Edozein

Aizkorpe bailaran dago Zerain, Gipuzkoa hegoaldean, Araba eta Nafarroako mugetatik gertu.

ARGAZKI PRESS





Jakoba Errekondo paisajistak 16 urte daramatza Zeraingo proiektuan lanean.

herri txikiri bezala, oinarritzko gauzak egiteko oso larri iristen zaigu dirua... beraz, auzolana nahitaezkoa da herria bizirik mantendu nahi badugu". Kontua auzolanaz ulertzen duguna gaurkora egokitzea da: "Antzinako lanekin lotzen bazen (bideak konpondu, azpiegitura handien mantentzea edo erretako baserria berritzea...), orain komunitatearen egungo premietara egokitu behar da. Gaur behar da kirola egiteko aukera, kultur eskaintza, haurren aisialdia... Hor aplikatu behar dugu auzolana".

Administrazioaren esku utzi beharrean, auzolanean egiteak "dena du ona", Errekondoren hitzetan: "Batetik, premiaz jabetzea; bestetik jakitea gure arazoak guk konponduko ditugula, inor ez dela etorriko kanpotik arazoei irtenbidea ematera; eta hirugarrena, guk emandako irtenbidea beti dela gure arazoarentzat onena". Gainera ez dauka mugarik: "Auzolanaren kultura garatzen den komunitatea nahi duen tokiraino joango da". Auzolanak sortzen duen kultura, jakituria, informazio trukaketa, aberastasuna... neurrigabekoa da: "Adibidez, 80 urteko aitona herri batzar batean 10 urteko ume-gazte batekin debatitzen ikustea, horrek ez du preziorik".

Zerainen auzolana ohitura da. Duela 40 urte jarri zen martxan: hasieran etxebizitzaren arazoari irtenbidea emateko, gero Udalean parte-hartzea sustatzeko, eta geroztik udal-txeak etengabe jarraitu du hori sustatzen, batzarren bidez. Errekondok herritarren benetako parte-hartzea aldarrikatu du: "Batzar horri garrantzia eman behar zaio,

hau da, jendeak esaten duena egin egin behar da. Eta ez jendea bildu eta gero nahi duzuna egin, herri gehienek egiten duten bezala. Noski, hirugarren bilerarako jendea ez da joaten, alferrikakoa delako. Jendeak ikusten badu berak esaten duena garrantzitsua dela, eta bere ideiak errealtate bihurtzen direla, gustura hartzen du parte".

Batzarrek kultura bat sortzen dutela gaineratu du: "Enfrentamenduko kultura bat sortu beharrean, nork dituen sei boto eta nork lau, proposamen denak aztertzen dira, eta denon artean ikusi zein den interesgarriena. Une jakin batean proposamena egin duenak erretiratu egin dezake panorama ikusita, edo beste kasu batean bi proiektuekin bat egingo da... Denon artean aurrera egiteko kultura da". Horrela lan eginda, zailena bozketa batera iristea dela dio: "Batzarretan nik ez dut ezagutzen inoiz bozketara iritsi denik, kontsentsuz hartzen dira erabakiak. Baina hori horrela da batzarretan, Udal plenoetan... Oso garrantzitsua da".

Zerainen Udala ez dute alderdi politikoek osatzen, herri zerrendak baizik. Eta honek ere badu eragina denen artean aurrera egiteko kultura horretan. Herri batzarrean erabakitzen da zein izango diren Udalean: "Legeak esaten du hemengo udalak bost partaide dituela, baina gure gizalegeak dio plenoetan zazpi ordezkari egongo direla: bost legez zinegotzi aukeratzen direnak, baina baita ere kultur elkarteko lehendakaria (dinamika kulturalaren ordezkari) eta bestetik Zerain Dezagun Fundazioko lehendakaria (dinamika sozioekonomikoaren ordezkari). Zazpi horiek dute parte hartzeko eskubide bera, eta erabakiak denen artean hartzen dira".

Paisaia kulturala

Zeraingo proiektuaren ardatza "paisaia kulturala" kontzeptua da. Honela azaldu digu Errekondok: "Natura paisaia bihurtzen da gizakiak aldatzen duenean. Euskal Herrian ez daukagu jatorrizko naturarik, gizakia inoiz iritsi ez denik, gure eraginik jaso ez duen naturarik. Euskaldunok milaka urtetako kulturarekin eraldatu dugun paisaia da gure oinarria. Hori da paisaia. Paisaia horri kultura bat eransten badiogu, komunitate batek pentsatuta egiten dituen ekintza horiek, hori da paisaia kulturala. Eta guk auzolanaren ikuspegitik eragiten dugu paisaia, kultura berezi bat sortzen ari gara. Guretzako erdigungea natura da, bigarren zirkuluan paisaia (gure eragina duen natura) dago, hirugarren zirkuluan paisaia kulturala (gure kultura), eta ardatz horren inguruan sortzen dugu guk dena: komunitateko bizimodua, bizitza kaltetatea, ekonomia...

Proiektuaren hiru hanka

Hiru egitura ditu Zerainek, hanka bakoitzaz arduratzeko: Udalak bizi-kalitatea lantzen du, Oa kultur elkarteak komunitatea dinamizatzen du eta Zerain Dezagun Fundazioak etorkizun ekonomikoa lantzen du. Ikus ditzagun banaka:

1.-Bizi-kalitatea. Planteamendua da zerain-darrek bertan bizitzeagatik ez dezatela bizi maila baxuagoa izan. “Adibidez, zergatik izan behar du Internet konexio kaskarragoa Donostiako kalean bizi denak baino? Edo zergatik daude arazo gehiago garraio publiko ona edukitzeko? Berdintasuna lortzeko baliabideak jarri behar dira” ohartarazi du Errekondok. Bizi-kalitatea bermatzeko, gainerako herri txikiekin alderatuta oinarritzko zerbitzu eta azpiegitura aberatsak ditu Zerainek (ikus zerbitzuen koadroa). Une honetan inbertsio handia egiten ari dira ur zikinen saneamendu egokia bideratzeko, “eta hori herri txiki batentzat sekulako diru zuloa da, baina paisaia garrantzia handia duena”.

2.-Komunitatea indartzea. Kultur elkarteak arduratzen da ikastaroez, hezkuntza arautuaz, kanpoko heziketaz... *XaguArtean* herri aldizkaria ere ateratzen du hilero eta urtekaria ere bai. Beste ildo garrantzitsu bat ondarearen berreskurapena da: mapa toponimikoa egin dute, eta unitate didaktikoak ere eskaintzen dituzte, bisitan datozen hurrekin bertako hainbat gai lantzeko (meategiak, zerrategia, artzaintza, baserria...). Eskaintza erakargarri bat ere prest izango dute aurtengo negurako: herri osoko ibilbideen sarea, paisaia oinarri duela. Ibilbide batek eramango gaitu baserri inguruetara (baratzeak, soroak eta horren inguruko lanak ezagutzeko), beste batek artzaintza lurretara (neguko behealdeko larreak eta udako mendialdekoak ezagutzeko), beste ibilbide batek meategietara, beste batek Aizkorri Aratz Parke Naturalera... Ibilbide bakoitza bere landarediarekin eta paisaiarekin lotuta egongo da, eta denen artean sarea osatuko dute. Ondarea da gakoa Zerainentzat, ondare horretan oinarritzen dutela-ko hirugarren hanka:

3.-Etorkizun ekonomikoa. Zerain Dezagun Fundazioa 1997an sortu zen, eta ordutik hona 34 lanpostu sortu dituzte, ondarea, zentzu zabalean, oinarri dutela: ondare naturala, ondare kulturala (arkitektonikoa, arkeologikoa, immateriala) eta zeraindarrek ondaretzat daukaten lehen sektorea. “Klabea da enpresa txikiak eta bertakoak izatea, eta ondarearekin lotuak: turismoa, bisitak, pedagogia eta didaktika...” Aizpeako meategia Monumentu Multzo izendatuta dago eta horrek ahalbideratzen du zaharberritze proiektuak egitea eta gero balioan jartzea. Herriko museoa ireki zen



ARGAZKI PRESS

Aizkorri Aratz parke naturalaren barruan, Aizpeako meategia Monumentu Multzo izendatu du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Burdingintza prozesua azaltzeko Aizpittako Adieraztegia martxan dago bertan. “Polborina” galeria eta Kiskalketa labeak ere ikusgai daude, eta informazio mahaiek lagundutako mendi ibilbideak ere bai. Bisita egiteko ordutegia: asteburu eta jaiegunetan 11:00-14:00 eta 15:30-17:30ak bitartean. Informazio gehiago, turismo bulegoan: (0034)943801505.

1993an, eta meategiko aradieraztegia 2008an. Taldeentzako bisitak prestatzen dira, eztingintza ezagutzeko, baserria, gaztagintza, meategia, zerrategia... “Gure mailako dinamika ekonomikoa sortzea da asmoa. Zerbitzu txiki batzuekin: nekazalturismoak, sagardotegiak, jatetxeak, albergetxo bat... eta zerbitzu turistikoekin. Eta horietan sartzen da gure baserrietako kalitatezko produktuak saltzea. Lehen sektorea turismoari lotuta bultzatzea da klabea”. Horregatik topatuko dituzu turismo bulegoan bertako produktuak salgai, eta baita Interneteko www.zerain.com helbidean ere.

Herriarentzat zein da neurri egokia?

“Etengabeko debate-gaia da neurria, eta hala behar du”. Zerainek duela 100 urte 600 biztanle zituen. “Baina neurria zein da, 600 haiek? Gaurko gizartea ez da ordukoa, baserri bakoitzean hamabost pertsona bizi zirena. Horrek esan nahi du hirigintza klase bat planteatzen ari garela, ekonomia bat eta abar. Eguneroko dinamika darama debate hori aurrera”. Aurrera begirako asmoen berri eman digu: “Garbi dugu oraindik hazteko aukera badugula eta hazteak ekarriko luke bizi-kalitaterako oinarritzko azpiegitura eta zerbitzuak hobetzea. Neurri egokian eta bertatik erabakita hazteko joera daukagu”. Hamabost etxebizitza egitea da planteamendua, hori bai, babes ofizialekoak edo nolabait publikoki babestutakoak: “Gazteak lortzeko nahitaezkoa da babes ofizialekoak egitea, eta hori bultzatzen ari gara. Noski, horrelako herri batean hamabost etxebizitza izugarritzko aldaketa da. Lehenik bertakoen premiei erantzuteko izango dira, bertako gazteentzat, eta gero gerokoak”.

Finantzazioa erakartzeko sekretua

“Gu saiatzen gara kanpotik dirua ekartzen, zeren herrian oso diru gutxi dago, Udala oso



XVI. Azoka Ekologikoa

Ekintza kulturalak

Aurten XVI. aldiz egin den Azoka Ekologikoa da ezagunena, baina ekintza pila egiten da urtean zehar: Endika Alustizaren omenezko XVII. bola txapelketa, Kultur Astea, zaldi lasterketa, Arantzazura erromesaldia, tute eta mus txapelketak, San Isidro eguneko herri bazkaria, San Joan sua, Mutiloara VII. jaitsiera, 40 urtez gorakoen Dantza Txapelketa, pilota txapelketa, ikatz txondorra...

txikia da. Aldundia, Eusko Jaur-laritza, Espainiako Gobernua, Europa, sektore pribatua... Iturri guztiak miatzen ditugu”.

Diruz laguntzeko, Zeraingo proiektua administrazioei zergatik zaien erakargarri galdetu diogu Errekondori: “Hasieran jendeari kosta zitzaion egiten ari ginenaz jabetzea, baina urteekin garbi ikusten dira emaitzak eta batez ere baloratzen dena auzolana da. Zerainera datorren euro bakoitzari ateratzen zaion etekina ezin da alderatu hiri handi batera joaten den euroarekin. Jendearen parte-hartze orduak ekonomikoki baloratuko bagenu, euro bat euro pila bihurtzen da. Ondarearen kasuan ez dugu zaharberritu bakarrik egiten, balorean jartzen dugu, ondare hori jada motor ekonomiko bat da eta orduan bere zaharberritze eta mantentzearen jabe egiten da. Eta era berean lanpostuak sortzen ditugu, eta lanpostu horiek beste dinamika bat sortzen dute paisaian... ikuspegi integral horrek dakar administrazioarentzat eredu bat izatea”. Eta Zerain bada ereduak: Espainiako Gobernua (Nekazaritza Ministerioaren bidez) egiten ari den proiektu eta herri eredugarrien zerrendan, EAEtik Gasteizko proiektu bat eta Zeraingoa bakarrik hartu dituzte.

“Agenda 21, Transition town... identifikatuta sentitzen naiz, baina iruditzen zait berandu datozela, gu askoz aurrerago gaude”



Larraondoko zerrategi hidraulikoa.

Elkarteak

Zerain Dezagun Fundazioaz gain bost elkarte daude herrian: Oa kultur elkarte, Litzormendi elkarte gastronomikoa (80 bazkide), Basarte guraso elkarte, Gana-duzaleen elkarte, Uharka abesbatza eta Kristauen elkarte.

“Ekosistemaren emana”

Zeraingo proiektua iraunkortasunaren aldeko munduko joerekin bat datorren iradoki diogu: “Nik horiek denak ikusten ditudanean beti identifikatuta sentitzen naiz, baina iruditzen zait berandu datozela, gu askoz aurrerago gaude. Hori gertatu zitzaidan Agenda 21arekin: badirudi Agenda 21 dela ezdakitzar, eta Zerainen 40 urte daramatzate Agenda 21 egiten. Edo *Transition town*, zure baliabideak neurtzea eta horiei ahalik eta etekin onena ateratzea eta ahalik eta iraunkorrena izatea... edo *kilometro 0* edo *Slow food*... guretzat ikusitakoak eta atzean geratutakoak dira”. Gipuzkoako produktu ekologikoen azoka zaharrena Zeraingoa da, hamasei urte dira egiten direla. “Eta orain dela hamasei urte horretaz hitz egiten hasi ginenean, eroak ginen”. Gipuzkoa barrualdeko lehen turismo bulegoa Zerainen ireki zen; “txoratuta al geunden galdetzen ziguten. Baina ohituta gaude horretara”. Diskurtsoa baino, praktika maite du Errekondok: “Traunkortasunari guk ematen diogun definizioa eta ematen diogun eguneroko indarra da gakoa. Eta ez diskurtsoa, zeren gaur egun denak daude ‘berdearen’ alde, baita Repsol edo Iberdrola ere. Gure ikuspegia askoz aurreratuagoa da”.



ZERAINGO TURISMO BULEGOA



ARGAZKI PRESS

Zerbitzu eta azpiegiturak

- * Medikua egunero.
- * Haurreskola.
- * Eskola.
- * Garraio publikoa.
- * Turismo bulegoa.
- * Bertako produktuen denda.
- * Ostatuak.
- * Elkarre gastronomikoa.
- * Kultur Etxea: Ludoteka, liburutegia.
- * Frontoia.
- * Bolatokia.
- * Haurrentzako parkea

Ondarea

- * Larraondoko zerrategi hidraulikoa.
- * Aizpeako meategia, Monumentu Multzoa eta bertako Aizpitta Adieraztegia.
- * Herri museoa.
- * 1711ko kartzela.
- * San Blas ermita.
- * Andra Mari eliza.
- * Jauregia.
- * Aizkorri Aratz parke naturala.
- * Herri kaskoko monumentu multzoa.
- * Zabalegi eta Arrolako hilerriak.
- * Ostatu etxea.
- * Segura-Zerain galtzada.
- * Olabide baserria.

Jada ez omen dute iraunkortasunaz hitz egin, “ekosistemaren emana”z baizik: “Konzeptu aurreratuagoa da, hemen inork erabiltzen ez duena. Aldiz, Suedia, Ingalaterra, Herbehereak edo Kanadara joaten bagara, urteak dira zientzialariek definizio horri eusten diotela, eta iraunkortasunaren hurrengo pausotzat hartzen dute”. “Ekosistemaren emana” hitzetan ekarri du Errekondok euskarara *ecosystem services* kontzeptua. Zera esan nahi du: daukagun guztia ekosistemak eman digu, ematen digu eta eman behar digu. “Horretaz benetan jabetzen garenean hasiko gara ekosistema benetan zaintzen. Eta ekosistemak ematen duen hori askoz hobeto neurtuko dugu, etekin

hobea aterako diogu... “Ekosistemaren emana” kontzeptua, paisaia kulturalarekin lotzen da. Urrats ekologikoaren definizioarekin ere bat dator, “alegia, euskaldun bakoitzak berez dago-kigun lur zatia baino bi eta erdi gehiago kontsumitzen du. Beraz, beste Euskal Herri bat eta erdi lapurtzen ari gara beste nonbaitetik, gu bizi garen eran bizi ahal izateko”.

Zeraindik beteta itzuli gara, bertako produktuak motxilan, paisaiaren parte izatearen bizipenak golkoan eta “ekosistemaren emana” kontzeptuak sorrarazitako galderak buruan. ■

ZUMALABE HOTELA



Portuko bidea, 2 · Mutriku (Gipuzkoa) · Tel. 943 60 46 17 · www.hotelzumalabe.com

Maria Pilar Lasarte

«Tartean euskara bazen, bost axola zitzaizun gainerakoa»

Euskaltzaindiak Gipuzkoako Diputazioan izan zuen bulegoan jardun zuen urte askoan inurri lanean. Lupa hartu, ordea, eta txikitasunaren handitasuna ageri dute Maria Pilar Lasarteren kanpo eta barruko biziek.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

[Galdezka hasi baino lehen esan digu, apal]

Elkarrizketak egin izan dizkidate orain baino lehen, eta neure buruari esaten diot: “Baina zer zentzu du niri elkarrizketa egiteak?”. Eta hasten zaizkit handik eta hemendik: “Eta zergatik ez?”. Gero, baietz esaten dut, baina ez dut oso atsegin... Ez naiz “pertsonaia”. Bestetik, pentsatzen dut pertsona guztiok ere hor dugula egoa, eta horretarako balio dutela elkarrizketa eta kontu hauek, egoa pixka bat paseatzeko. Baina bada gauza sako-nagorik...

Erljioa, adibidez?

Zalantzarik gabe! Kontua da erlijioari buruz esan digutena oso gauza arina dela. Erljioak formak dira: budismoa dela, islama, kristautasuna... Formak baizik ez. Forma horien azpian zerbait sakonagoa dago. Horra erlijioen arteko elkarrizketa, forma huts horien azpian dagoen espiritualitate sakona agerira ekartzeko, alegia.

Zer ziren aramiak (Arantzazuko Amaren Misio-lari Irugarrendarrak)?

Zer esanen dizut? 60ko hamarkadan erlijioak zabaltzen zuen irudi bera zabaltzen zuten aramiek. Ez zen berrikuntzarik. Tira, kristautasuna eta Euskal Herria bateratu nahi zituzten, eta, horri dagokionez, ikuspegia aski berritzailea zen. Baina erlijio ikuspegitik ez zuen aparteko sakontasunik. Ni sakon astindu ninduen Antonio Blay katalana izan zen. 1978an izan zen. Blayri entzun arte ez nintzen jabetu txikitandik sartu zizkiguten ideiek zer eragin zuten gure inkontzientean, barne-barnean, aske izateko zer lan egin behar genuen, geure buruari begira jarrita. Blayk

pertsonaren ikuspegi psikologikoa eta espiritualitatea sakondu eta uztartu zituen. 1978an hasi eta 85ean hil zen arte jarraitu nizkion eman izan zituen kurtsoak, bai udako oporretan Bartzelonara joanez, eta bai Donostiara etortzen zenean ere. Arami taldea hor zegoen, bai, hilero biltzen ginen, baina nik ez nuen taldeak bezala ikusten ez taldea, ez kristautasuna. Eta horixe adierazten nuen bilera haietan. Taldean lagunak ditut, eta horrek zuen garrantzia. Norberak ahal zuen moduan ateratzen zuen bizia, eta gaiak sakontzeko biltzen ginen hilero. Lehenengo kurtsoaren bukaeran hileroko bilerak utziko nituela esan nuen, taldea utzi bai, baina ez hor ditudan lagunak.

1937an Leitza jaioa, batzokian.

Baina hilabeteetara Lasartenea tabernan ginen. Amak esanda dakit, batzokian jaio nin-

Nortasun agiria

Maria Pilar Lasarte Zubitur (Leitza, 1937). Euskaltzaindiaren Gipuzkoako ordezkartzan jardun zuen lanean 1968tik 2000n erretiratu arte. Etxeko tabernan hazi zen eta bertan lan egin. Paper-fabrika ere lan egin zuen. 60ko hamarkadan, aramien kristau taldeak zuzendu zuen haren bizitza. 1978an, Antonio Blay sakonago jo zuen bide horretan. Euskaltzaindian lanean hasi eta ikasketak egiteko denbora hartu zuen, Filologia Hispanikoa. Ondoren, bizi osoan lagundu dioten bestelako ikasketak hasi zituen, sekula utzi ez dituenak: pertsona norberaren baitara begira jartzen duten zientziaren bidean barna sartu zen. 2008an Lao Zi-ren *Dao De Jing*, taoismoaren biblia, euskaratu zuen Joxe Arregiren eskariz eta laguntzaz.





Ikasle apunteak

"Elgetan egon nintzenean, hiru ginen andereñoak. Bi irakasle tituludunak ziren. Nik ez nuen halakorik, eta ez zitzaidan batere egokia iruditzen. Eta Batxilergoa egiten hasi nintzen, orduantxe. Batxilergoa zientzia adarretik egin eta Filologia Hispanikoa ikasi nuen, unibertsitatean sartzeko 25 urtetik gorakoentzako azterketa eginda. Egunez Euskaltzaindian lanean eta arratsalde-iluntzean EUTGn, unibertsitatean. Dezente kostatu zitzaidan baina! Eta arraro egiten zitzaidan hainbeste apunte hartu behar izatea!".

tzela, baina besterik ez. Gerra urtea zen 1937. Eskasia bazen, eta errazionamendua, baina etxean taberna eta ez ginen gose izan. Hala ere, txikia nintzen ezertaz jabetzeko... Sei urte nituela hil zitzaidan aita. Gero, berriz ezkondu zen ama. Bigarren aita hura ere gerran ibilia zen, eta bazituen kontatzekoak. Amak ere bai. Kontatzen zuen, esaterako, Leitzako kuartelean bazela kabo bat, oso berezia, eta gure etxeko balkoian, nonbait, Espainiako bandera jarria, baina haizeak edo astindu eta bandera hura ez zegoela behar zen bezala. Eta kaboak gure amari zakar esan ziola: "Maria, behar baldin bada eutsi harriarekin banderari!". Leitzan, jakina, jende ezberdina zegoen, batzuk oso euskaldunak, beste batzuk oso espainolak. Tabernan sartuta ezagutu nituen botikaria eta albaitaria. Oso euskaldunak ziren biak. Etxean Radio Paris entzuten genuen —Alberto Onaindia *Aita Olaso* abadeak esaten zituenak, besteak beste—, eta botikariak eta albaitariak beren komentarioak egiten zituzten. Aberri eguna ez zen ospatzen gerra ondo hartan, baina bi haiek oso barrutik bizi zuten hura... Ni oso oso adi egoten nintzen, haiek zer esaten ote zuten. Bestalde, Karlos Santamariak ere *La Voz de España*n idazten zuen, eta haien berri ere heltzen zitzaidan. 13 urteko neska kozkorra nintzen, etxeko tabernan lagundu eta amari senide txikiagoak hazten laguntzeagatik eskolara joateari utzitakoa, eta gauza asko entzuten nituen...

Tabernan hazia izateak ezer diferente dakar?

Horixe baietz! Kristau giro itxian bizi ginen, apaizak agintzen zuen. Tabernan berriz, gazteak edanean ikusten nituen, batzuk mozkortuta ere bai... Neska-laguntzea ere izaten zen. Neska-laguntzen alderdi batean ibilitakoek, oinetakoak beltz zekartzaten; beste aldean jardundakoek, lur gorritz. Nor non ibilia zen jakiten zen orduan. Edo neska-laguntzera kanpotarrak etorri eta harrika eraso zietela... Etxean jakiten ez zirenak jakiten ziren tabernan bizituta. Gauza asko, eta jende asko.

18 urte zenituela, paper-fabrikari hasi zinen lanean, Leitzatik hur, Berrobin.

Bai. Taberna errentan jarri eta libre geratu nintzen. Leitzan, artean, paper-fabrika egiten ari ziren eta hura martxan jartzen zen egunerako zerbait ikastea zen helburua. Talde handi xamarra joaten ginen, egunero. Goizeko zazpitan joan, hamar ordu lan egin eta buelta berriz ere. Ez genuen Berrobin apopilo jartzeko behar beste irabazten. Autobusean, Leitzatik Berastegira arrosarioa erreza-tzen joaten ginen. Txoferrak, Etxabek,

erantzten zuen txapela eta gurekin batera, errezoan. Berastegitik Berrobira, kantu eta kantu! Mexikarrak, euskarazkoak... Sekulako festa egiten genuen!

Leitzako kaletik Berrobiko fabrikara, aldaketa handia izango zen, ala?

Ikaragarria! Bizimodu ezberdina. Diru berria sartzen hasi zen herrian. Aurretik, jendea mendira joaten zen, bateko baserri eta besteko azienda, han ateratzen zuen bizia, hemengo oiloak eta hango arrautzak, miseriarik gabe. Fabrika beste mundu bat zen, zeharo ezberdina. Guk ez genekien hura zer zen ere! Lehenbiziko huelga egin zenean, guk ez genekien huelga zenik ere. Bilerak eginak izanzen zituzten, baina guk jakin ez! Inozenteak ginen. Sartu autobusean eta joan ginen Berrobira. Fabrikan huelga, ezin zitekeela sartu eta Tolosara joan ginen. Hantxe ibili ginen gora eta behera. Nahikoa egin genuenean, fabrikara joan ginen, Leitzara joateko guri autobusa jartzeko esanez. Huelgan ginen, baina etxera joateko autobus eske. Gure inozentzia noraino! Ez ziguten kasurik egin, jakina. Hartu genuen lineako autobusa Berastegiraino, eta handik Leitzara oinez.

Inozentziatik kontzientziara igaro zineten...

Noizbait. Nagusi antzeko katalan batzuek langileok nola hartzen gintuzten ikusita. Oroitzen naiz fabrika lanean hasi eta gaizki ibili zela, papera puskatu eta puskatu egiten zen pintatzeko sailean, ni nengoenean. Don Pepe izenekoa etorri zen Berastegiko Arrozi fabrikatik. Errepublikarra zen, gizon fina. Errepublikako kontuak-eta ibiltzen zituen eta ni adi-adi egoten nintzaion. Papera puskatzen zenean han hasten zen jendea birao-ka, maldizioa han eta hemen, eta behin esan zion Don Pepek biraolari haietako bati: "Hik mezatara joateko ohiturarik baduk?!". "Bai". "Bada, hura Jainkoaren tenplua duk,

Jende ikasia

"Filologian ikasten ari nintzela, asko zekien jendea nuen ondoan. Jose Antonio Azpiroz bat, esate baterako. Aurrezki kutxan lan egiten zuen. Hark, ingelesa, frantsesa, alemana... Hau eta hura zekien. Ni aldiz, hantxe, inurri lanean, juxtu-juxtuan, baina aurrera. Jose Antonio Azpiroz hura oso zen euskal kutsukoa. Denak ez ziren horrelakoak baina. Ni fabrikan lan egindakoa nintzen eta, nire ikuspegiari, jende ikasia (izan ingeniari, kimikari, botikari edo albaitari), zerbait baino gehiago zen. Tituluari garrantzia ematen nion, nik ez nuen garaian. Gerora ikusi dut tituluak ez duela orduan ematen nion balioa, benetako pertsona izateak eta nor garen sakontzeak duela garrantzia".

eta hau, lanaren tenplua!". Eta isilarazi zuen. Nik, berriz, dena jasotzen nuen, dena.

Ikasketak ere egin zenituen, aldi berean.

Bulegoan lan egiteko nahi ninduten-eta. Posta bidezko zenbait ikastaro eginak nituen Leitzako tabernan bizi nintzen garaian. Gero, fabrikan bulegora hots egin zidatenean, idazmakina bat ere alokatu nuen Donostian. Etxera eramanez nuenean amak ez zuen ulertzen ni zertan ari nintzen makina hartan ikasten, haren alokairua ordainduz, alegia! Gu neskak ginen, eta neskak ez zuen ikasteko premiari, nonbait. Ikastea mutilei zegokien! Horrela ikusten zuen amak, hala zen-eta giroa.

Fabrikako lana utzi zenuen halako batean, eta euskararen bidean barna abiatu zinen...

Justiziaren kontzientzia handia nuen. Ikusten nuen euskaldunak justizia behar zuela. Kristau kutsua, berriz, hainbestearaino genuen! *Pacem in Terris* entziklikaren garaia zen eta, behin, Eugenio Agirretxe frantziskotarrak hitzaldiak egin zituen Tolosan. Zenbait lagunek, hartu taxia Leitzan eta Tolosara. Herrien eskubideen alde egiten zuen entziklikak eta horretaz jardun zuen Agirretxek. Bestalde, Leitzan baziren San Frantziskoren Hirugarren ordenakoak, eta giro hartan murgilduta bizi ginen. Arami taldea osatuta zegoen ordurako. Etxea zuten Ikaztegiatan. Pixkana-pixkana bide horretatik jo nuen: justizia, Euskal Herria eta kristau kutsua, hirurak biltzen ziren aramien artean, eta bat egin nuen etxe hartan bizi zirenekin, lanean urtebeteko eszedentzia hartuta. Jakina, ez nintzen sekula fabrikara itzuli. Jertseak-eta josiz ateratzen genuen bizia. Lan egin behar zela esaten ziguten, eta Donibane Lohizunen ere izan nintzen, 1965eko udan, hotel bateko lanean. Kurtsoa hasi zenean Elgetan nintzen, eskolan, haur ttikiei erakusten.

lagunekin euskaraz

interneten ere bai

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

OFF THE RECORD

Leitzako andere langilea

Eginkorra, zerbitzala,
beti mirabe leiala;
gure hizkuntzaren biztualdia
munduan goza dezala.

Arrosa bezain dotore,
sentimenduetan noble,
Leitzako andere langileari
txaloak eta ohore.

(Joan Mari Lekuonak Maria Pilar Lasarteri,
erretiroa hartu eta honen agur-bazkarian)

Joannes Etxeberry andereño eskolan ere izan zinen, Donostian.

“Andereñoen erresidentzia” esaten zitzaion, izen horrekin zen ezaguna. Bertako zuzendaria gaixotu egin zen, Pakita Arregi. Orduan, Katalina Irureta eta biok hara joan behar genuela esan ziguten. Eta joan ginen, bizia atera behar zen-eta, nolabait. Antiguako Matia kalean izan ginen, Villa Blanca izenekoan. Bota zuten... Irakasle izateko ikasten ari zen jendea zegoen erresidentzia hartan. Oroitzen naiz Joan Mari Lekuona, Joxemiel Barandiaran... izan zirela hitzaldiak ematen. Barandiaranen bila Atauneraino joan nintzen, gida-baimena atera berria ni! Elurra ari zuen, baina gizonak baietz, joango ginela Donostiara... Andereño haiek irakasle-eskolan egiten zituzten ikasketa formalak. Andereñoen erresidentzian euskal kulturari buruzko hitzaldiak izaten zituzten. Han ibiltzen ziren gaur aski ezagunak diren mutil gazte zenbait. Andereño haiek neska gazte politak izan! Eta euskaldunak! Dena dela, andereño haietako batzuek erdaraz hitz egiten zuten igual. Gaztelaniz hitz egiten zuenak pezeta pagatu beharko zuela ezarri genuen araua. Eta, hala ere, beti borrokan. kontzientzia bazuten, baina baziren euskal girorik bizi ez zutenak, gaztelaniz mintzo zirenak. Oroitzen naiz, behin, nola jarri nuen bertso bat iragarki taulan: “Euskaraz egiten da peztarren beldurrez / Honek betetzen digu bihotza arantzez / Holako andereñoak begien aurrean ez / Hobe eginen luke Kongora joanez!”. Behin, etorri da Joan Mari [Lekuona], eta han non hasten den bertso hori nola edo hala zortziko txikian jarri eta kantatzen! Lotsatu nintzen, inork ez baitzekien nork jarri zuen delako bertsoa.

Blay

“1978an, ikasketak
bukatu eta
bestelako ikastaro
bat egin nuen,
Antonio Blayrekin.
‘Karrerako bost
urtean baino
gehiago ikasi dut
hemen’, esan nuen.
Yoga egina nintzen
ordurako, eta beti
izan nuen
pertsonaren barrua
sakontzeko gogoia.
Arami taldeak ez
ninduen
asebetetzen.
Blayren ikuspegia
askoz ere
sakonagoa
zitzaidan, bai
pertsonaren
barruan sakontzeko,
bai espiritualitatea
lantzeko ere.
Zalantzarik gabe,
askoz ere
egokiagoa nuen nik
Blay. Hemengo
zerua eta hango
infernua, ez nituen
kontu horiek batere
argi ikusten, eta
hori alde batera utzi
eta beste bide
batetik abiatu
nintzen”.

1967an andereñoen erresidentzian zinen, eta ondoko urtean Euskaltzaindian lanean.

68an Arantzazuko biltzarra, eta norbait behar zutela esan zidaten. Pakita Arregik berak esan zidala uste dut. Pedro Berrondorekin mintzatu nintzen. Bestalde, Euskaltzaindiaren asmoa zen Gipuzkoako Diputazioan zabaltzea bulegoa, eta hantxe hasi nintzen lanean. Batere uste gabe hasi nintzen Euskaltzaindian eta bertan aritu nintzen 2000. urtera arte. Ez nintzen Arantzazun izan, saltsa izan zela banekien, baina ez nintzen hura neurtzeko gauza. Ez nekien. Tartean euskara bazen, bost axola zitzaizun gainerakoa, gizarte segurantzia eta soldadak. Bizitzeko lain ateraz gero, berdin zitzaion. Idealismo hutsa zen hura.

Hogeita hamar urte baino gehiago egin dituzu Euskaltzaindian. Hamaika ikusiko zenuen...

Bada, bai. *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia* egin zen ni sartu berritan. 1973an argitaratu zen. Astero biltzen ginen Karlos Santamaria, Joxemiel Zumalabe, Xalbador Garmendia, Irigarai eta bostok. Jakina, haiek ziren jakitunak. Karlos Santamaria kezkatan zen ikastolako hiztegirik ez zelako. Zerbait egin nahi zuen eta hortik etorri zen hiztegi hura egitea. Handik hona egin diren hiztegiak kontuan hartu eta deus ez zen hura, baina orduan gauza handia izan zen. Talde hartako idazkari lanak egin nituen. Oso garai interesgarria izan zen. Diputazioan zegoen Euskaltzaindiaren egoitza, Aldundian batere euskal girorik ez zenean. Karlos Santamaria eta Joxemiel Zumalabe prestigidun pertsonak ziren, eta uste dut horri esker ginela gu Diputazioan. Baina euskal girorik batere ez han. Oroitzen naiz, fotokopiagailuan, ilaran, jendea ere esperoan eta baten batek esan zidala: “Zu ez zara Diputazio-koal!”. Nik: “Euskaltzaindiarentzat ari naiz lanean, Diputazio honek beste diputazioekin batera 1918an sortutako erakundean”. Kezkarik gabe egiten nuen haren defentsa, inozentzia guztiarekin. “Zer esaten ari da hau, baina?”. Gerora bai, sumatu nuen zer edo zer, Diputazioan bertan alde batetik bestera mugitu behar izan genuenean. Ez dakit nik zenbat bulego diferente pasatu genituen! Katakumeak nola erabiltzen dituzten batetik bestera, halaxe erabili gintuzten gu. Eta hartu paperak eta liburuak, ongi antolatu eta segi beti beste bulego batera. Halakoa zen giroa.

Hori ere etorri zen bere onera halako batean...


Pixka bat bai, etorri zen... Euskarazko eskolak ere eman nituen Diputazioan bertan. Beste giro bat nagusitu zen. ■



argia



www.argia.com/multimedia

*bertsio digitaletik harago
argi berri bat sarean*




Bideoak

Elkarriketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.





Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.





Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




Ekitaldiak

Euskal Herriko txoko ezberdinetan emandako hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean euskaraz.



Film laburrak

Euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat bi astean behin. Euskaraz edo euskarazko azpitituluekin.

Bermaturik al dago konfidentzialtasuna?

Herritarrok datu ugari lagatzen dugu administrazio publikoaren esku, eta horiek txarto kudeatzeak, arrazoia edozein izanik ere, kolokan jarriko luke datu babeserako oinarrizko eskubidea. Nahikoa zorrotz babesten al dute pilatutako informazioa?

JON TORNER



NAVARRA.ES

Irudian, ogasuneko izapide administratiboak Nafarroako egoitzetako batean. Administrazioek guri buruzko informazio asko biltzen dute.

ESPAINIAKO TRAFIKO ZUZENDARITZAREN (DGT) webgunera sartuta, gelditzen zaizkien puntuen gaineko informazioa kontsulta dezakete 24 milioi gidarik. Norberaren historiala errepasatzeko, nahikoa da nortasun agiriaren zenbakia, gidatzeko baimenaren luzapen-data eta helbide elektronikoa ematea. Informazio gutxiegi dela uste du Datuak Babesteko Espainiako Agentziak (AEPD), sistema ez dela nahikoa segurua, erabiltzaileen datuen konfidentzialtasuna ez dagoelako guztiz bermaturik. Alegia, pazientzia eta abildade apur

bat duen edonor sar daitekeela gure historia-lera eta informazio hori bere probetxurako erabili. Datuak Babesteko Agentziak DGTri ohartarazi dio Datu Babesen Lege Organikoa urratzen ari dela, eta gidarien gaineko informazioa zorrotzago babesteko agindu dio. DG Tk, ordea, ez du eskaera aintzat hartu. Sistemak “zuloak” dituela onartu arren, “ikuspuntu juridikotik” hura aldatzera derri-gorturik ez dagoela adierazi du. Gainera, oraindik inork ez omen du gidarien identita-tea ordezkatu. Oraindik. Inoiz halakorik ger-

tatzen bada, zein neurri hartuko lirateke? Zein zigor ezarriko litzaioke DGTri, edo dagokion administrazioari? Nork jarriko lioke zigorra? Eta bitartean, nork behartu dezake DGT babes-neurri eraginkorrak aplikatzera?

“Estatu mailako erakundea denez, Datuak Babesteko Espainiako Agentziari dagokio DGTk egindako arau-hausteak deklaratzeko”, esan digu Román Intxaurtietak Datuak Babesteko Euskal Bulegoko (DBEB) lege-aholkulariak. Entitate publikoa den heinean, DGTri ezin zaio zigor ekonomikorik aplikatu: “Arau-hausteak deklaratzeko xedea da portaera desegokiak desagerrarazi eta etorkizunean ere halakorik gerta ez dadin bermatzea. Hori ez dute isunetik lortuko, zentzugabekeria litzaitekeelako administrazioak administrazioan bertan biltzea dirua”. Arau-hauste argia dagoen kasuetan, administrazioari ondare-erantzukizuna exijitu ahal zaio, bere fitxategietan dagoen informazio pertsonala arduragabekiaz babesteagatik. Intxaurtietaren hitzetan, “zigor ekonomikorik ez aplikatzeak ez du esan nahi erantzukizunik eta kalte-ordainik ez dagoenik, erantzulea kaltea egin duen langilea izango baita, eta diziplina-neurriak ezar dakizkioke; kalte-ordainari dagokionez, ondare-erantzukizunaren bidea dago, kaltetuak administrazioaren aurrean edo bide judizialean baliatu dezakeena”.

Datu-babeserako eskubidea –administrazioaren aurrean– lekuan lekuko agentziek edo Espainiako AEPDk bermatzen dute. EAEn, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio euskal administrazio publikoek egiten dituzten datu-tratamenduak zaintzea. Aldiz, Hego Euskal Herriko entitate pribatuak egiten dituzten tratamenduak Espainiako Agentziak kontrolatzen ditu. Horiei, enpresa pribatuei, jarri ahal zaizkie zigor ekonomikoak. Hain justu, kritika gehien alde horretatik jasotzen ditu datu-babesaren kontrol lanak. Administrazioak ez du egindako

Geroz eta prozedura gehiago has daitezke Internet bidez: zerga aitorpenak, langileen kotizazioaren ingurukoak, erregistro publikoak... Batzuetan, zilegi da administrazioek bildutako datuak elkarren artean trukatzeko, baina gehienetan, nahitaezkoa da interesdunek oniritzia ematea lehenbizi

arau-hausteengatik (dirurik) ordaintzen, eta entitate pribatuak bai; legea ez betetzeak ez du kostu ekonomikorik administrazioarentzat. Herritarren begietara, gainera, ezer gutxi egin daiteke administrazioaren kudeaketa kontrolatu eta salatzeko. Esparru ezezaguna da askorentzat.

“Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eginkizunetako bat hori da: oinarritzko eskubide hau herritarren artean ezagutaraztea”, dio Intxaurtietak. “Oro har, jendeak uste du pribatutasuna galtzea ez dela gauza hain larria, baina herritarrei azalduz gero zein ondorio ekarri ahal dizkien datuen erabilera okerrak, interesa pizten da haiengan, eta une horretatik aurrera, gaiari buruzko gero eta informazio gehiago eskatzen dute”. Herritarrek badaki haren eskubidea noiz urratzen duten: “Fitxategia, tratamendua, lagapena, datu pertsonala, arduraduna eta eragilea bezalako kontzeptuez eta arlo honetako oinarritzko printzipioez ari naiz”, azaldu digu Intxaurtietak, “esate baterako, informazioa, adostasuna, eta datuen kalitate edo segurtasuna”.

Telefono-gidetatik ken nazazue

DBEBko lege-aholkulariaren hitzetan, “funtsezkoa da datuaren kultura hedatzea”. Herri-

ogiaren egia
*Denda berritu dugu!
 Zatoz eta bidaiatu
 iraganeko okindegi
 xarmant batera*

Galparsoro
OKINDEGIA

*Antzinako ogiaren
 kabia bihurtu baitugu
 denda zahar berria*

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
 (euskaraz, pertsonalizatua)



943 453 588 · www.SIGACUS.com

Datuak, enpresa pribatuen esku?

Posible al da administrazioak dituen datuak enpresa pribatu baten eskuetan erortzea? Román Intxaurtietaren hitzetan, "posible, posible da, baina administrazioak kasu gehienetan ondo babesten ditu herritarren datuak. Egin ditugun inkestak arabera, jendea fio da administrazioaz; bildutako datuak ongi babesten ditu. Batzuetan, administrazioak zerbitzu bat (aplikazio informatiko baten mantentze edo garapen lanak, adibidez) kontratatzen dio enpresa bati, eta nahitaezkoa da hari datu pertsonalak ematea. Kasu horietan, kontratuak agindu zehatzak jaso behar ditu: datu horiek nola erabili eta babestu behar diren, lana amaitzean administrazioari itzuli behar zaizkiola eta abar. Kontratuan agindu edo klausula horiek sartuz gero, enpresa izango da erantzulea datuak txarto erabiltzen baditu".



ROMÁN INTXAURTIEK UTZIA

tarrak eurengana noiz jo dezakeen azaldu digu: "Batetik, euskal administrazio publiko-en aurkako salaketak jar ditzake, uste badu ez dutela errespetatu datu-babeserako oinarriko eskubidea. Bestetik, gure babesa eska dezake datuetara sartu, zuzendu edo ezerezteko eskubideak ez direla bete pentsatzen badu".

Badira beste eskubide batzuk, Datuak Babesteko Erregistroa kontsultatzeko, kalteordaina hartzeko, telefono-gidetatik kentzeko eta nahi ez den publizitatea ez jasotzeko eskubideak, esaterako. Telefono-katalogoetan agertzen diren oinarriko datuak interesdunaren onespenera gabe lortu daitezke. Telefono-zerbitzuetako abonatuaren katalogoetan gure izena, abizena eta helbidea agertzen dira, eta horietatik kentzeko eskatu ezean, datuok edonork kontsultatu eta erabil ditzake. Nahi izanez gero, abonatuaren katalogoetatik gure datu guztiak edo batzuk doan ken ditzaten eskatzeko eskubidea dugu.

"Ahalegina egiten dugu herritarrari laguntzeko", adierazi digu Intxaurtietak: "Oinarriko eskubide honen gainean behar duen informazioa eskaintzen diogu, eskura dituen

baliabideei buruzkoa, administrazioei eskatzen diegu pertsonen eskubideak asebetetze-ko eta administrazioek deklaraturik dituzten fitxategiak argitaratzen ditugu Erregistroaren bidez, besteak beste".

Zein datu truka ditzakete administrazioek?

Administrazioek guri buruzko informazio piloa biltzen dute. Geroz eta prozedura gehiago has daitezke Internet bidez: zerga aitortpenak, eskaera konkretuak toki-korporazioetan (udaletan, adibidez), langileen kotizazioei begirako aitortpenak, erregistro publikoak... Batzuetan, zilegi da administrazioek bildutako datuak elkarren artean trukatea. "Oso zaila da zerrenda zehatza egitea", dio Intxaurtietak. "Zenbait kasu oso argiak dira: legeren batek esaten duenean trukeak egin daitezkeela; bi administrazioek (lagapen-hartzaileak eta lagatzaileak) gai berari buruzko eskumenak dituztenean (gizarte zerbitzuen kasuan gertatzen den bezala); edo fiskaltzak, epaileek, epaitegiek, Arartekoak edo Herri-Kontuen Epaitegiak eskatzen dizkietenean datuak administrazioei". Hala ere, gehienetan, arau orokorrak hala zehaztuta, nahitaezkoa izaten da interesdunek oniritzia adieraztea lehenbizi. Bereziki babestutako datuak direnean (ideologia, erlijioa, sinesmenak, sindikatu afiliazioa, arraza, osasuna eta bizitza sexuala) datu-tratamenduak egiteko bete behar diren baldintzak zorrotzagoak dira. ■

Isunak publiko

Intxaurtietari galdetu diogu: Aldizkari ofizialetan argitaratzen al dira herritarren datuak, isunak eta halakoak? "Normalean ez. Buletin ofizialetan agertzen diren isunak argitaratuak izan dira ezinezkoa izan delako interesdunari jakinaraztea. Harekin harremanetan jarri nahi baina lortzen ez bada —bi saiakera eginda—, etxean ez dagoelako edo uko egiten diolako, legeak baimena ematen du ebazpena publiko egiteko".

argia.com Informazio gehiago:
www.avpd.euskadi.net: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
www.agpd.es: Datuak Babesteko Espainiako Agentzia

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



TTAKUN (H)ERRENKA

Ilusio makinak



uraxe izan zen azken galdera: “Zorionsu al zara?”. Igande arratsaldea zen, bazkal

DANI BLANCO



Ana Urkiza



Padrón



Sarasola

oste, siesta garaia. Baina eskulanak egiten harripatu gintuen. Inkesta egile gazte batek etxeko turrina jo eta EAEko bizi kalitate mailari buruzko inkesta bat burutzen ari zirela jakitera eman zigun. Ea bost minutuko galdetegi bati erantzungo genion. Gazte-gaztea zen. Aurpegian idatzita zeraman egun guztian ez zuela hamar inkesta burutzerik lortu. Eta, astelehenean, nagusiak emaitzak eskatuko zizkiola. Larri zebilela, alegia.

Egongelara pasatu genuen eta galderei erantzuten hasi ginen. Denetik galdetu zigun: lana, oporrak, familia, politika, kultura... eta, azkenean, buruhaustea: “Zorionsu al zara?”. Oti 10era bitarteko nota jartzeko. Eta nik, biribil-biribil, bederatzia eman nion.

Mutila agurtu genuenean, senarrak harrituta utzi nuela esan zidan: “Bederatzi bat? Segun eta koktelera zer sartzen duzun!” esanez bukatu zuen handik pixka batera.

Eta ez, ez nago hain ados azken ttakun-kadarekin. Edo bai. Agintariak ez dute gure tristura bilatzen. Agintariak, bai lehen, bai orain, zirkoa eskaintzen saiatzen zaizkigu, gehiegi pentsa ez dezagun edo, bederen, gehiegi kexa ez gaitezen... Ez dago telebista ikustea besterik. Edo eta beraien adierazpenak entzun, barrabaskeriarik handiena egin eta esandako egunean ere, konbentzitu nahian, gauza ororen alderdi baikorra saldu beharrean... Beste kontu bat da biktimismoarena. Kristautasuna oinarri izan dugularik, gaur egungo artearen zola tristura ez ezik, sufrimendua da. Eta zinema hartuko dut adibide. Istorio gehienek, gordinenak izanik ere, sufrimendua dute abiapuntu,

noski, helmuga zorionsu batera heltzeko. Bidea denik eta zailena izan liteke baina, azkenean, zoriona erdiesten dugu... Eta dugu diot, protagonistekin bizi dugulako guk ere, inorena den mundu irreal bezain zorionsua. Eta bikotekidearekin haserretzen garenean, filmeko protagonistarekin oheratzen gara eta, kito! Arazoa erdiratuta.

Ez, ez nago ados asteburuak gero eta lanpetuagoak ditugun iruzkinarekin ere. Halaxe da, bai, halaxe izan dadin uzten dugulako. Eta bizitza azalekoak irensten ditugulako. Ordu beteko filmak bezain azal eta laburrak. Arazoa, astelehenean lankideari zer kontatu da. Nork ez du, bada, asteburu oro bidaiatzen, asteburu oro afaritik bazkarira eta bazkaritik afarira, edo halako edo bestelako klubeko kiroldegian giharrak luzatzen ibiltzen ez denik? *Bon vivant* hauek, ordea, beldurra diote galdera magikoari: “Zorionsu al zara?”.

“Zer da, ba, zorionsu izatea?” bota zigun batek, aurrera, kafean. “Nik nahi dudana egiten dut; jada ez daukat tontakerietarako adinik, baina hortik zorionsu izatera... zoriona ez da existitzen! Beti dago aldamenean, norbaiten bat, izorratuko zaituena!”.

Beste inork ez zuen deus esan. Zoriona kanpotik bizitzea nahikoa ez izanik, zorion eza ere kanpotik datorkigula aditzera eman zuen. Eta zer pentsatua ematen du: “Gure zoriona besteen esku dagoela?”. Ez, zoriona begirada da, norbanakoaren begirada, norberea eta transferiezina, bizi dugun une bakoitzari atxikia. Gainontzeko guztia, literaturan bezala, gure esku ez dagoen guztia asmatuz amets egiteko estakuru merkea baizik ez da. Hori bai, kontsumitzaile errazak engainatzeko sekulako ilusio makina da. ■



Bikotekidearekin haserretzen garenean,
filmeko protagonistarekin
oheratzen gara eta, kito!

Arazoa erdiratuta



Carmen Valois

IRAKASLEA

Atzekoz aurrera

A

zken bolada honetan egunkariak atzekoz aurrera irakurtzen ditut. Bai, ohiko moduari muzin eginez, horrela ekiten diot eguneroko erri-

toari. Atzetik hasten naiz, eta gero matxinsalto baten antzera, saltoka mugitzen naiz orrialdeen zehar begirada zutabeetan pausatzen.

Horietan baitatza, hain zuzen ere, nire irakurketa era justifikatzen duen arrazoia. Izan ere, berri agentziek, eta ondorioz egunkariak zabaltzen dituzten informazio homogeneoen aurrean, zutabegileek eskaintzen dituzten ikuspuntuak anitzak eta jasoak izaten dira. Eta irakurleak horiek behar ditu pentsamendu autonomo bat garatzeko eta baita iritzi propioa sortzeko ere. Horretarako ezinbestekoak dira zutabegileek erabiltzen dituzten argudio, hipotesi eta tesiak.

Hau kontuan izanda, oso garrantzitsua iruditzen zait nola eta zertarako erabiltzen den zutabeek osatzen duten “gune publikoa”. Azken finean, idazten duena gizaki pribilegiatu bat bilakatzen baita. Zergatik, ordea? Ba, bere argudioak eta arrazoiak plazaratzeko eta azaltzeko eskubidea aitortzen zaiolako.

Eta ez nator ni zutabegileen soziologia egi-tera: zutabegileek, irakurleek bezala, helburuak eta motibazioak ezberdinak izango dituztelako,



DANI BLANCO

batzuek analitikoagoak, bestetzuek balorati-
boagoak; hainbatek orientabideak eskainiko
dituzte, beste batzuek estimulak... Edozein
modutan, abiapuntua niretzat, irakurleari
zor zaion errespetuan datza. Hori gabe, zer
da ba idaztea? Ez al da norberaren txokotik
bestearenganako bideari zintzoki egitea?

Eta galdera honek erantzukizunaren ere-
mura garamatza. Zentzu honetan,
norberak bere burua ezagutzea da
aurreneko pausoa. Bestela, batzuetan
agerikoa da, zutabegileak espazio hori
baliatzen duela bere zalantza existen-
tzialak agertzeko, eta ene irudiko, ira-
kurlea nahastu egiten du, honek ez
baitaki laguntza eske ari zaion edo zer-
tan ari den. Horregatik, beharrezkoa
da norbera bakean egotea bere burua-
rekin, emozio eta beldurrak kontrol-
pean izanda, jarraian, hausnarketa-
deliberazio prozesuari heldu ahal
izateko.

Dudarik gabe, pentsamendu kriti-
koa garatzea beharrezkoa den aro
berri honetan, merezi du ariketa egi-
teak; are gehiago gaur egun, egunka-
riak irakurtzea ia bazterreko jarduera
bilakatu denean. Eta nola ez, aukeratzeko gai-
tasuna geurea dugun bitartean, hautua egin
dezagun. Eta nirea ezagutzen duzue: atzetik
hasi aurrera egin ahal izateko.

Besterik gabe, irakurle. Ongi izan. ■

«

Batzuetan zutabegileak
espazioa baliatzen du bere
zalantza existentzialak
agertzeko, eta irakurlea
nahastu egiten du

»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Barna ibiltzea egokitu zaigu.
Lleidatik hasi eta Bartzelonan
bi eguneko egonaldia egin

ostean Tarragonara egin behar izan dugu
ogibidea ardura. Bikain hartzen gaituzte
gure gaitasun profesionalaz at, euskaldunok badugulako
haientzat fundamenturik, guk baino lehenagokoek utzi
arrastoa zabala bezain sakona baita. Ibili garen enpresetan
katalanaz egin digute lehen agurra, gure gaztelerazko
erantzunaren ondoren barkamena entzun behar izan
dugularik. Lotsa puntua ekartzen digu egoerak, eurentzat
guztiz normalizatua dutena. “Ez dute denek zuek bezala
erreakzionatzen, espainolek haserre plantak egiten dizki-

Kataluniatik

gute eta ez dute barkamena berehala onar-
tzen. Euskaldunekin erraza da, beti ere
saiazen dira agurra katalanaz dakiten apu-
rraz egiten. Eta gaitzerdi saltzera datozenean, erosterako-
an lekuz kanpo daudenak gu izango bagina bezala sentia-
razten baikaituzte. Ez dute kontutan hartu nahi gure
eremuko, gure arteko hizkuntza darabilgula. Datorrena
kanpokoa dela badakigunean, lehen hitza bere hizkuntzan
egiten saiatzen gara, baina heldu dena nongoa den ez
dugu beti jakiten”. Harreren dagoen baten esaldiak dira.
Frantzia edo Espainia ez zaizkigu holakoak gertatzen,
hizkuntza bakarrekoak bailiran hartzen gaituzte eta ez
dute inoiz barkamenik eskatu behar. Ze pagotxa! ■

Joxerra Aizpurna

INDUSTRIA INGENIARIA

Pasaia, Hondarribia, Euskal Herria

Pasaian egin asmo dagoen kanpoko portuaz pentsatzen ari naizela, Jaizkibel zulatzea, espigoiak itsas barreneraino eraikitzea ontziek merkantziak karga eta deskarga dezaten, lotura egokiak errepide eta trenbideekin egitea merkantziak ailega eta atera daitezen. Ez dut dudarik teknologiak pisu handia izango duenik.

Egingo dena egingo dela ere, ez dut nahi hogeitaz urte barru bizi izango diren gazteek begien bistan izango duten pasaiak normaltzat hartzea, normaltzat hartzen ez genuen bezala Errenteriko desastre urbanistikoa ezagutu genuenok; kanpoko itsas kaia desastrea izango denik ezin dut ziurtatu, baina itsasoak kai berriari kobratuko dion prezioa ez dela nolana hikoia izango ziur nago.

Pasaia kaia egun ongi babesten dute Jaizkibel eta Uli mendiek eta aldiz kanpoko kaiaren babesa, inbertsioa edozein dela ere, ez da gaur egungoarena izango. Babes berriak egiteko eta mantentzeko egin behar izango den esfortzu ekonomikoa izugarria izango dela uste dut, neurrigabekoa ez esatearren!

Baina kaia hobetu, handitu, egokitu beharra dago. Pentsa dezagun beste era batera. Kanporantz baino zergatik ez barrurantz pentsatu. Zentral termikoaren bizia amaitzen ari da, beraz okupatzen dituen



DANI BLANCO

Kanpoko itsas kaia desastrea izango denik ezin dut ziurtatu, baina itsasoak kai berriari kobratuko dion prezioa ez dela nolana hikoia izango ziur nago

lurrak epe motzean erabilgarri izan daitezke; Errenterian CAMPSAk zituen lurrak etxeak eraikitzeke ziren, baina zergatik ez pentsatu etorkizuneko kaiaren eremu gisa; estiba eta desestibarako eremu berriak kaiaren erdian ur gainean mugitzen diren patioen bidez eraiki daitezke; zergatik ez behea datorren eta itsasoaren gainean dagoen

Hondarribiako aireportua merkantziarako kai bihurtu Pasaia kaia konektatzen; izan ere aireportuko muturrak 50m edo 100m laburtu daitezke, badiari eta natur guneari espazio gehiago eman eta kaiaren eraginkortasuna txikitu gabe

Aipatu ditudan ideietan oinarritutako kaia eraikitzeak esfortzu teknologikoa izugarria eskatuko du, baina ez dut uste egun planteatzen diren inbertsioak baino handiagoak eskatuko dituenik. Aldiz, azken hamarkadetan hain alaiak eraldatu dugun orografiari atsedena ematea eta esfortzu teknologikoari esker dagoenari etekin handiagoa ateratzea, txukuntzea eta berritzea bada etorkizuneko belaunaldientzat utz dezakegun garapen-eredu egoki bat.

Baina horretarako Euskal Herriak herri bezala funtzionatu behar du. Prest al gaude Hondarribiako aireportua Biarritzera eramateko? Edo Hondarribiako eta Pasaia kaia udalak kai kontuetan batera aritzeko? ■

TXANDAN

Andoni Mujika



Eraikuntza nazionala, herri-gintza, gizartearekiko kezka, konpromisoa... Espresio asko ideia berberaren bueltan. Guztiak gus-tuko ditudan arren, uste dut termino argiagoak eta indartsuagoak erabili behar ditugula behingoz. Hogeita batgarren mendean herri eraginkorra izan nahi dugu. Horretarako, anbigueta-teen lurraldeetatik irten egin beharko genuke eta iparra (aberria-estatua) modu esplizituan jaso. Estatua edukitzeak ere, herri baten askatasuna eta nor-tasuna bermatzen ez duen garai historiko honetan, nola jarri genitzake zalantzan aberria eta estatua?

Esnatu

Egun, bere etorkizuna estatu terminotan definitzen ez duen herria hilik dago alde-z aurretik, eta estatua izanda ere, kontuz. Gainontzeko estatuek estatua izateari uko egiten dieten unean, orduantxe utziko diot abertzale izateari eta estatua aldarrikatzeari. Eta bitartean? Indar ekonomiko, intelektual, sozial, politikoak... norabi-de horretan jartzea da pista nagusia. Kontzientzia eta heldutasunaren garaia da. Edozein herri hel-buru anbiziotsua eskuratzeko pertsona eta erakun-deen konfientzia behar du. Herria eraikitze-tik aberria eraikitze-ra jo behar dugu, fronte guztietatik eta despistatu barik. Espainia esna dago, eta gu? ■

ZIRTA

Patxi Zubizarreta

IDAZLEA

Musak

Buenos Airesen gertatu zen, festa batean. Emakume batek gizon bat liluratu zuen eta hura, pilotua izaki, honela zuzendu zitzaion: “Hegaldatu nirekin. Erakutsiko dizudan eguzki sartzea ezin izango duzu beste inon ikusi”. Emakumeak aurrena uko egin zion, baina gizonak eskuetatik heldu baitzion, eta xarmatu, akaberran onartu egin behar izan zuen proposamena. Hala bada, emakumea beldurak hilik igo zen hegazkinera, bere bizia pilotuaren esku utzirik. Alabaina, zeruan gora egin zutelarik, gizonak esku horixe ezarri zuen emakumearen belaunetan, eta, masaila eskaintzarekin batera, esan zion: “Musu eman nahi al didazu?”. Emakumea desenkusaka hasi zitzaion: “Musu... maite denari baino ez zaio musu ematen, eta ongi ezagutu ostean betiere. Gainera, orain gutxi alargundu naiz”. Pilotuak, baina, etsi ez, eta ezpainak horzkatu zituen irribarre atxikitze-ko: “Musu ematen ez baldin badidazu, uretara goaz”, eta itsasora zuzendu zuen hegazkin muturra.

Buenos Aireseko zeruan gertatu zen, hegazkin batean. Pilotuak motorrak itzali zituen bidailagunaren musua lortzearen. Eta, emakumeak, izularriturik, ernegaturik, oiuhu lazarri bat egin zuen. Río de la Plata aldera amiltzen ari zirela, gizonak adierazi zion ulertzen zuela musukatu nahi ez izatea, itsusia izaki, eta berriro ere lortu zuen emakumearen bihotza hunkitzea. “Neskatila bat zarelako eta beldur zarelako maite zaitut”, esan zion, eta horrekin batera emakumeak musu eman zion. “Hauek eskutxoak! Neskatila baten eskutxoak inondik ere! Emazkidazu betiko!”, hasi zitzaion atzera motorrak piztearekin batera. “Ez dut maingu izateko asmorik!”, erantzun zion emakumeak. “Zu bai graziosa! Nirekin ezkon zaitezela eskatzen ari natzaizu. Zure eskuak maite ditut. Niretzat bakarrik izatea nahi dut”, ausartu zitzaion gizona, eta



DANI BLANCO



Memorias de la rosa autobiografía

irakurri nuenean, ez nuen



atsegin izan emazteak idazleari

erakusten zion menpekotasuna

eta lilura, baina are gutxiago

gustatu zitzaidan idazlearen

heroi izan behar hura



irudia:

Antton Olariaga

emakumeak, lotsaz, aitzakiatu zion ordu gutxi batzuk baino ez zirela elkar ezagutzen zutela. “Ikusiko, ikusiko nola ezkonzen zaren nirekin”, amaitu zuen pilotuak, eta baita akaberran lortu ere.

Antoine de Saint-Exupéry eta Consuelo Uncinen arteko pasadizo benetako hau oroitarazi didate azken aldian kasualitatez ikusitako bi filmek, Jane Campion-en *Bright star*—gogoratu *Pianoa* filma— eta Michael Hoffmanen *Azken geltokia* lanek hain zuzen ere. Lehenengoak Leon Tolstoi idazlearen azken egunak jasotzen ditu, eta Sofia —Helen Mirren— emazte aberatsarekin dituen harreman gorabeheratsuak islatzen ditu; bigarrenak ere John Keats poetaren azken hilabeteak laburbildu zituen eta, ados, beharbada haren maitale Fanny jostunak —Abbie Cornish— protagonismo handiagoa du poetak berak baino. Bi filmak ederrak dira, beharbada sozialagoa lehenengo eta poetikoagoa bigarrena, baina bien tempusa eta, funtsean, kontaketa, antzekoak dira, eta nago, idazlearen eta musaren arteko tirabira horretan, ikusleari geratzen zaion irudipen inkontzientean lehenengo dela garailea, sortzailea alegia, eta, sublimalki, zinematik irtetea idazlea=gizonezkoa binominoa errota irteten garela, eta inondik ere hura mitifikaturik ageri dela.

Consuelo Uncin-en *Memorias de la rosa* autobiografía irakurri nuenean, ez nuen atsegin izan emazteak idazleari erakusten zion menpekotasuna eta lilura (“Mezu bat daukazu gizakiei emateko. Ezerk ezin zaitu gelditu. Ezta nik neuk ere”), baina are gutxiago gustatu zitzaidan idazlearen heroi izan behar hura (“Tiro egin diezadatela behar dut, gerra zentzugabe honetan garbi eta aratz sentitzeko beharrezana dut”). Bai harreman hauek bai gaur egungo zinemari islatu dizkiguten mailaketa anarkroniko hauek zenbaterainoko gaurkotatuna ote duten, horixe galdegiten diot neure buruari. ■



BERTSO BERRIAK

Aitor Alkistur

Gizon onaren bentajak

I

Kaixo Xenpelar idazten dizut gizon onaren bentajak jakin ditzazun, nahiz ia entzun zure ijiji-ajajak. Ez gara horren señoitoak, ez gara hain maharajak... Edozein etxek nahiko lituzke gu bezalako alhajak.

II

Garaiak nola aldatu diren jakingo balu Txirritak! Zazpi lan egun dauzka asteak, baina zuloa patrikak... Ugaldur dira langintzak eta ugaldur dira fabrikak: orain erratza eta fregona dira gure erremintak.

III

Esnatu eta jeikitzerako, aita zintzoak bezela, ondo dakigu seme-alabak prestatu behar direla. Honi esnea berotu eta hari aldatu pardela... Aritzen denak bakarrik daki horren erraza ez dela!

IV

Haurtzaindegira eraman eta lantokirako tartean soilik dabilta etxeko lanak guregandik apartean. Eta han ere lan egin behar nagusi denen artean, behintzat soldata lan egin gabe etxeratzen den artean...

V

Sutan jartzean probatzen denez eltzea nolakoa den, ikustekoa da sukaldean zeinen mainatsuak garen! Tortilla sarri prestatu arren arrautzak bota baino lehen, jaki guztiak dira gozoak norberak egin ondoren.

VI

Xaboiak eta leungarriak aski dituenetz beti, labadorari ere eskerrak nola eman bagenek! "Start" sakatu eta gerora soilik atea ireki... Gure arropa gobernatzen du geronek baino hobeki!

VII

Hamaika gailu daude etxean eta askotan zalantzan egoten gara behar duguna ipini aurretik martxan... Xerrekin edo arroparekin maiz aritzen gara plantxan, hartutakoa dagokiena izateko esperantzan.

VIII

Garbitasuna gure etxean sarri dago erbestean... Nahiz maiz garbitu beti aritzen da gehiagoren eskean! Aspiradora esku batean eta trapua bestean, beltzune asko desagertzen da gure kopetak belztean.

IX

Kalera ere irteten gara, nahiz eta gutxi aukeran, gaurko legeek derrigortuta abstemioen tankeran. Tabernariak krisian daude, sagardogileak greban... Kotxea hartzen baldin badugu ezin dugulako edan.

X

Alkoholik gabe bizimodua denez erabat kaskarra, egarriaren erruz sarritan izaten dugu liskarra. Legea egin zuen pertsona nahiz izango zen azkarra, baldin neronek ikusi banu hautsiko nion bizkarra!

XI

Gaurko gizonak izan behar du oso gizon zerbitzala, langile fina etxean eta kalean berriz formala. Orain guztia da erdibana eta eskerrak den hala! Dena guretzat den egunean Jaunak anpara gaitzala!

XII

Idatzi dizut Xenpelar, nola gabiltzan jakin zenezan. Lazkao-Txikik par egingo du ez baitu hartzen sorpresan; baina, mesedez eskatzen dizut, Txirritari deus ez esan bizi ez duen garaigatik ere sufritu ez dezan.

DOINUA: "Eguna pasa lanean eta" edo "Andre txarraren bentajak".



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Musika

Harribitxi berrienak, zuzenean

Ez duzu gustuko talde berririk aurkitzen, betiko diskoekin aspertu zara baina nobedadeek barruko garrik pizten ez. Askori gertatzen zaio. Gehiegiri? Euskal musikak eman ote ditu onenak? Ezkortasun horren kontrako errezeta modura sortu da Harrobia Zuzen kontzertu egitasmoa Donostian. Belaunaldi berriari musika berria dagokiolako.

GORKA BEREZIARTUA

HERRI IRRATIKO Sektor Rock irratsaioan hasi zen kontua. Saioa Inaxio Esnaolak eta Gregorio Galvezek (ikus ARGIAren 2.245. zenbakian Iker Barandiaranek egin elkarrizketa) gidatu dute aurtengo maiatzera arte –Herri Irratia Noticias taldean sartu arte, alegia–, baina mikrofono aurreko lanaz gain bazuten bestelako xederik. Kontzertuak bultzatzea, kasu. Donostian Euskal Herriko taldeei lekua egin nahi zieten eta lehen saiakera iazko urrian egin zuten Dokan, Grises eta Focusin taldeekin. Esnaolaren ustez, horren beharra badu Easo Ederrak, hirian kontzertu ugari antolatzen badira ere, eta kanpoko talde interesgarriak ezagutzeko parada eskaintzen badute ere, ez dutelako bertako taldeentzat sobera lekurik uzten. “Zilborrari begiratzea: hori zen orduan geneukan helburua; ze orain, kontrakoa egitea bihurtu da tendentzia”.

Helburu hori beste irratsaio batean gorpuztu zen: Sektor Rock uhinetatik desagertu aitzin, martxan zegoen Harrobia saioa Herri Irratian bertan, oraingoan Esnaola kapitain bakar. Galvezekin batera egiten zuen programarekin alderatuta diferentea da errezeta: elkarrizketa gutxiago eta musika gehiago jartzen du kazetari donostiarrak; eta euskara hutsean egiten da, aurreko eredu elebidunaren orde. Bigarren denboraldia Info Zazpi irratiari hasi du uda honetan Esnaolak, baina Sektor Rocken jaio zen asmo hura ezin bazterrean utzi: Donostiako kontzertuen panorama Euskal Herriko taldeekin aberasteko grinaz jarraitzen zuenez, urri honetan jarriko du

willis drummond
yellow page

post hardcore
pasai antxo
hain zuzen
lekorne
rock

urriak 30 de octubre
doka hafe antzokia (donostia)
21:00 - 5€

hr!Z
harrobia zuzen kontzertu programa

doka musika ENTZUN! I ♥ ROCK HAMMERED

harrobia [antzen ekimona] | harrobiatantzen@gmail.com • harrobiatantzen.blogspot.com



LANDER ARBELAITZ

Willis Drummond (goian) eta Yelow Page (eskuinean).

martxan Harrobia Zuzen egitasmoa, Willis Drummond eta Yelow Page taldeek Dokan eskainiko duten kontzertuarekin. “Euskal Herriko eszenako talde esanguratsuak ekartzea da helburua, eta horiekin batera gonbidatu gisa jartzea Donostia inguruko taldeak, hasiberriak, edo behintzat ibilbide luzea egin ez dutenak”.

Jotzeko aukerak bai, baina...

Zergatik lehen urratsak ematen ari diren taldeei eskainitako kontzertu programazio bat? Lehen bezain zaila ote da zuzenean jotzea talde hasiberrientzat? Esnaolak ez du uste. “Esango nuke aro hori pasa dela: bai grabatzeko zailtasunena, bai zuzenean aritzearena. Gaur egun badaude lekuak jotzeko, taberne-



YELLOW PAGE

Donostian aretoak behar dira

Dokan izango dira Harrobia Zuzeneko kontzertu guztiak. Antiguako aretoak badaramatza urteak martxan, talde asko pasa dira, baina problemak ere ez dira falta izan. Urrutirago joan gabe, aurtengo uztailan Udalak aretoko bafleak zigilatatu zituen, ordutegiz kanpo bolumena handiegia zela argudiatuta. Gipuzkoako hiriburuan ez dira gehiegi kontzertuak eskaintzeko aukera ematen duten lokalak, eta Esnaolak uste du Udalak ez duela apustu berezirik egiten horren alde. “Dauden beste baliabide batzuk erabiltzeko ere ez dira gauzak errazten” azaldu du, eta Gazteszena aipatu. Edonola, Donostian Doka bezalako zerbait behar zela uste du kazetariak, bai taldeei eta bai ikusleei baldintza egokiak eskaintzen dizkielako.

atik hasi eta lokal autogestionatueta raino”. Baina, edonola, haren ustez Donostia ez da hiririk aproposena, zuzenean jotzeko lokalak ez direlako gehiegi ere. Hegoaldean panorama nola dagoen marraztu du gainera: “Gasteizen geroz eta mugimendu handiagoa dago; Bilbon egon da, baina badirudi orain, talde hasiberriei dagokienez, jaitsi egin dela pixka bat; Nafarroan kontua erdi hila dago...”.

Ez da zaletuek eta taldeek amestuko luke ten egoera, baina promotora askeagoak ego teak eta baliabide teknikoen demokratizazio ak, besteak beste, lagundu dute egoera hobea izaten. Musika egin, jo eta zabaltzeko bideak asko erraztu diren arren, problema bestelakoa da: “Hasi berri direnek ba ote dute aukerarik beraien musika jendearengan hedatzeko? Ze, bai, jo ditzakete kontzertuak; egin ditzakete mila kontzertu herri batean, baina inork entzuten ez baditu alferrik da”.

Esnaolak auziaren iltzea seinالاتu du: babesa. Kontzertuak antolatzeaz gain, prentsan eta irratan proposamen berriak aupat

Eszena ez da behar bezala ezagutzen

MAIZ entzuten da: Euskal Herrian musika egin bai, baina noiztik ez da talde interesgarrikerik aterata? Tanke-rako adierazpenak egin zituen Kaki Arkarazok maia-tzean *Berrian* egindako elkarrizketa batean: “Faltan botatzen dut belaunaldi berriak gauza berriak eskaintzea, eta gazte jendea mugitu, oldartu edo motibatuko duten proposamen berriak. Lehen baziren boladak, eta agertzen ziren talde berriak”.

Negu Gorriak taldeko gitarra-jotzaile ohia kexu zen, Berri Txarrak eta Ken Zazpi direlako azken talde garrantzitsuak, eta hamarkada osoa pasa delako sortu zirenetik. Esnaolak, horri buruz galdetuta, bestelako iritzia agertu du. Bere esanetan talde interesgarriak badira, izan. Ezagutzera ematea falta zaie. “Euskal Herriko eszena ez da behar bezala ezagutzen, baina badira talde oso interesgarriak. Beste batzuek, Arkarazok dioten moduan, patroi batzuk

jarraitzen dituzte. Eta agian rockean ez zaizu talde originalik sortuko, zaila da, baina nazioartean berdin; indie estiloan sor daitezke gauza originalagoak, baliteke nazioartean egiten denaren antzekoak izatea, baina Euskal Herrian landu gabeko estiloak dira, azken finean”.

Eta fenomeno hori ere ez da berria Esnaolaren ustez. Hemen beti berdina gertatu dela dio, musika elektrikoa eta distortsioa sartu zirenetik: “Kanpoko erreferentziak baliatu izan dira beti, eta horrela jarraitzen dugu. Baina hala izanda ere, batzuek asmatu dute pauso bat ematen”. Berri Txarrak aipatu du, euskal taldeen artean; baina ingelesez ari direnak ez ditu ahaztu: We Are Standard, Delorean... “Arkarazoren irakurketa ulertzekoa da, neurri batean egia da; baina era berean, jendeak ez du eszena ezagutzen. Eta pena da, sortzen den iritzia ez delako bidezkoa”.

tzea. Hala ere, kazetari donostiarrak ez du uste erruaren zati gizona informazioaren gremioarena denik, bere osoan. Gizartean kulturak bizi duen debaluazioaz hitz egin du, eta kaleko jendeak horren aurrean hartu duen jarreraz. “Gaur egun Berri Txarrakek jotzen du edo Ken Zazpi, eta jendea mugitzen da. Baina Sorotan Babies ikustera ez dira 100 pertsona baino gehiago joango”. Beraz, jotzeko aukerak bai, baina kontzertuetara joan daitezkeen horiek ez dauzkate belarriak zabal haien proposamenentzat.

Rocka oinarri, baina mugarik gabe

Estilo mugarik gabe jaio da Harrobia Zuzen kontzertu saila, baina rocka izango du oinarri. Lehenengo kontzertua halakoa da, nahiz eta musika ulertzeko bi modu diferente diren Willis Drummondek eta Yelow Pagek agerto-

kira eramango dituztenak. Proposamen zuzenagoa Lekorneko taldearena; Yelow Pagen aldiz, post-rocketik edaten duena, Fugazi eta Radiohead taldeengana hurbilduz, Esnaolaren esanetan.

“Ez dugu baztertzen pop-a; metala ere egongo da –gutxiengo, hori bai–, baina ez dugu pentsatu oraingoz, adibidez, jazz talderik sartzea, edo soula, edo bakarlarriak... Baina sor daitezke, eta izango luke lekua. Mugarik ez dugu”. Erabat zehazteke dagoen arren, hilean behin izango dira Harrobia Zuzeneko kontzertuak Dokan. Urtean

sei saio gutxienez antolatu gura lituzke Esnaolak, eta ahal dela, gehiago egiten saiatu. ■

“Gaur egun Berri Txarrakek jotzen du edo Ken Zazpi, eta jendea mugitzen da. Baina Sorotan Babies ikustera ez dira 100 pertsona baino gehiago joango”

INAXIO ESNAOLA, KAZETARIA

Erreportajea leituta musika talde berriak ezagutzeko grina kontrolaezina piztu bazaizu, blog hau ere interesatuko zaizu:

harrobialantzen.blogspot.com



ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO TEKNIKAK
TÉCNICAS DE RESTAURACIÓN DE EDIFICIOS

Olmos pasealekua 14, 5. solairua 20016 DONOSTIA
Tel: 943 401340 · Fax: 943 401511
teusa@teusa.com · www.teusa.com





Jaso euskal kultura egunero 10 albistetan



*Harpidetza doan e-postaz
Dagoeneko 2.500 harpidedun*

hari@

euskal kulturaren buletinak 10 urte

Harpidetu zaitez:

www.argia.com/harpidetza_haria.php

 **argia.com**



Literatura

Eduard Girbal Jaumeren
miraria

“Kultura katalanaren historia osoko gertakari literario garrantzitsuenetako batek bost urte bete berri ditu” idatzi du Lluís Bonada kritikariak *El Temps* astekarian, abuztuan, Eduard Girbal Jaumeren *L'estrella amb cua* nobela hizpide. Esaldiak arreta deitzen du, baina ez luke aparteko interesik sortuko, detaile txiki batengatik ez balitz: nobela 1919koa dela.

GORKA BEREZIARTUA

HAUTS ETA SITS ARTEAN pasa du ia mende bete Girbal Jaumek, harik eta 2005eko martxoan Edicions de 1984 etxeak, Enric Cassas poetaren gomendioz, *L'estrella amb cua* argitaratzea erabaki zuen arte. “Garcia Marquezek sinatzeko modukoa” Bonadaren iritziz. Eta soka ekarri duena. Urtebete beranduago, 2006ko otsaila, idazle beraren bigarren nobela publikatuko da, *La tragèdia de cal Pere Llarg*, Llibreter sariko finalista izango dena. Bonadaren aburuz XX. mendeko nobela katalan onenen alda-rean lekua dute bi liburuok, nahiz eta eguneroko prentsak, aldizkariak, irratiek, telebistak eta unibertsitateko filologoen gremioak ez dien merezitako traturik eskaini.

Nor zen Girbal Jaume eta zergatik egon da tiraderan XXI. mendera arte? 1881ean Gironan jaioa, 9 urterekin galdu zuen ama eta 15ekin aita. Prentsan erruz egin zuen lan, espainolez eta katalanez. Gazte ekin zion literaturari ere: 1905erako hasia duzu Lore Jokoetan parte hartzen eta hiru urte beranduago kalean izango du lehen poema liburua.

Gazte denboretan idatzitako obrekin ez zuen zirkulu literarioen errespeturik irabazi. Sariak bai ordea, eta horregatik, ez zen gehiegi ahalegindu estilo sendoagoa xerkatzen. Pompeu Fabrak proposatutako hizkuntz-erreformari buruzko eztabaidak betebetan harrapatuko du gainera, eta kontra egingo du, askatasun ortografikoaren aldeko diskurtsoekin; Girbal Jaumeren ustez, idazle bakoitzak nahierara idatziz gero, bukatu

egingo da behingoz gizarte katalana banantzen duen afera eta inposiziorik gabe batuko da hizkuntza.

Jarrera horregatik beharbada; agian Lore Jokoetan parte hartu izanagatik; biengatik apika, Herrialde Katalanetan Girbalen irudi okerra nagusitu zen Bonadaren ustez. “Sakristia kiratseko” poetatzat jo zuten, eta aurrerago idatzi zituen bi nobelak, hizkera herrikoia erabiliz onduak, ez ziren irakurle askorengana iritsi. XXI. mendera arte. Eta juzku oker baten erruz gainera, *El Temps*eko kritikariak dioenez *L'estrella amb cua* Josep Roca i Rocari eskainia baitago, kazetari satiriko eta antiklerikala bera.

Nolanahi, Girbal Jaumek izan du justiziarik azkenean. Berandu oso, baina iritsi da irakurleengana. Galdera egiteko parada eman du, ordea: izango ote dira antzeko gehiago letra katalanetan? Eta euskal literaturan? Ez ote dago baztertutako orri-mendian mendea pasata irakurtzea mereziko duen urre-pipitarik?

Kurt Wolff-ek –Franz Kafkaren eta Franz Werfelen editorea– behin sartu zuen hanka. Ez zuen Oswald Spenglerren *Mendebaldearen gainbehera* publikatu nahi izan eta, beste editoririk aurkitu izan ez balu, batek daki noiz izango genuen liburuaren ezaguera. Denok humanoak baikara, baliteke euskal editoreren batek inoiz tankerako akatsik egin izana. Ez haiek bakarrik: hedabideen galbahetik ere zenbat liburu on ez ote dira batere konturatu gabe irristatu. Urteek esango dute, eta urre urdinarren lurrina usaintzeko gai direnen abileziak. ■




Eduard Girbal Jaume idazle kataluniarrak ia mende bat itxaron behar izan du irakurleen arreta eduki ahal izateko.

Liburuak

KRITIKA

Beste gu.
Asier Mendoza. Ilustrazioak: Ivan Mata.
Elkar.
80 orrialde. 9,90 euro.

Haur eta gazte literatura
Xabier Etxaniz Erle



Odolaren usainak erakarrita

KRISTIAN GAZTEA dugu ipuin honen protagonista, eta gaztetxo honi jazotakoak biltzen dira ipuin honetako kapitulu ugarietan. Argumentua nahiko korapilatsua dela esan dezakegu; izan ere, gauza eta kontu asko kontatzen baitzaizkigu orrialde gutxitan. Hori da, hain zuzen, ipuin honen ezaugarrietako bat: duen egitura berezia. Hiru ahots ageri dira istorioa narratzen, hirugarren pertsona (Kutz doktorea omen dena eta Kristianekin izaniko elkarriketzen ondorioz lorturiko informazioa ematen diguna) eta lehen pertsonan kontaturiko bi egunkari: Kristianena, alde batetik eta Elizabethena bestetik. Hiru elementu horien testuak konbinatuz lortzen du Asier Mendozak ipuin honen puzzlea osatzea, eta lan honi esker irabazi zuen Lezamako Udalak eta Elkarrek antolatutako I. Mikel Zarate Haur Literatura Saria. Alde horretatik, oso pozgarria da literatura sari batek idazle berriak plazaratzeko aukera ematea, gazteak animatzea eta gure literaturaren panoraman bestelako ikuspegiak, istorioak, kontatzeko moduak plazaratzea.

Mendozak banpiroen istorioetatik nahiko hurbil dagoen kontakizuna azaltzen digu; are gehiago, ezagunak zaizkigun hainbat testu, film, erreferentzia, ageri dira han-hemenka testuan aipatuak, islatuak. Banpiroen tradizio hori hasiera-hasieratik azaltzen zaigu, liburuko lehen lerroetatik: “Zergatik ez ote zuen Kristianek aurpegia ispilu aurrean garbi ikusten? (...) Bazekien zerbait arraroa gertatzen ari zitzaioela, eta pixkanaka hazten zihon susmoak ez zion lasai lo egiten uzten.” (7. orrialdea). Baina hainbat kapitulutan susmoa gauzatzen ari dela ikusten dugularik, hara non amaierak istorioari buelta emanez, bestelako ikuspegi eta gertakariak azalduz, irakurlea harritu egingo duen.

Beste Gu hau nahiko erraz eta arin irakurtzen den ipuina dugu. Kapitulu laburrez osaturiko narrazioa dugu, eta arestian aipatu bezala, hainbat ahotsek ikuspegi ugari eskaintzeaz gain, lagundu egiten dute kontakizunaren erritmoan bizitasun handia emanez. Baina, bestalde, ahotsak ez daude oso lortuak, elkarriketzen transkripzioek kontakizunak dirudite, egunkarietako narrazioak, batzuetan, zehatzegiak dira, elkarriketaz osaturik, deskriptiboegiak (Kristianek gurasoekin gau batean duen elkarriketa, adibidez).

Eragozpen horiek kenduta di-da irakurtzen den istorio harrigarri eta entretenigarriaren aurrean gaudela esan dezakegu; Matak, irudien bidez, ederki girotu duen kontakizun banpirikoa. ■

Ingelesak euskaraz hitz egiten has daitezen

Garikoitz Knörr de Santiagok ingelesak euskaraz hizketan jarri nahi ditu. Helburu hori du *Kaixo! English-Basque conversation guide* liburuak: edozein ingeles hiztuni oinarritzko laguntza ematea, euskaraz solasean hasteko. Horretarako, egunero-egunero euskaraz erabiltzen diren esamoldeak bildu ditu liburu-

ruan, eta irakurleari azaldu dio zein testuingurutan erabil ditzakeen. Baina ez hori bakarrik: liburuak ahoskera gida ere badakar, baita euskararen oinarritzko gramatika ere. Gainera, hiztegi txikiari esker, aurrez ikasitako esamoldeak egoera ugaritan baliatu ahalko ditu atzeritik etorritako bisitariak. *Tourist, remember, you are in*



Kaixo!
Garikoitz Knörr.
Txertoa.
138 orrialde.
9,45 euro.

Gipuzkoa argazkiz eta letraz

Gipuzkoa bost zentzumenekin du izena Kutxak Euskal Herriko herrialde horri buruz argitaratu duen liburuak, baina begiei, ikusmenari emango die bazka liburuak, batez ere. Irudi ikusgarriak eta luma trebeak uztartuta egindako lana da: Gipuzkoaren irudi kolo-retsu, ugari eta biziak eskainiko zaizkio irakurleari orrietan barrena. Testuak, aldiz, herrialdeko idazleek sinatu dituzte: Harkaitz Cano, Mariasun Landa, Xabier Lete... Helburua, Xabier Iturbe Kutxako lehendakariak sarreran dioenez, Gipuzkoa berraztertzeke modua eskaintzea da, lurraldea ikuspuntu globaletik irudikatzeke. “Introspekzio ariketa” gisa definitu du Iturbek azal gogorreko liburu mardul hau. ■



Gipuzkoa...
Batzuen artean.
Kutxa.
383 orrialde.
20 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN

Melodia haizagailuaren baliozkotasuna



Haize berriak.
Siroka.
MusikHerria.
Iraupena: 29'29".
5 euro.

HAIZE BITXI HAU Ugao-Balmaseda ingurutik dator eta berri samarra bada ere, partaideak aurretik Kloratita, Keats, Feos pero Majos, Apurka eta bestelako hauspoetan ibiliak dira. Aipatutako esperientziak gogorragoak izan badira ere, honakoan melodia nabarmeneko rock askeago eta leunago baten alde egingen dute lan. Mariaren ahotsak darama ontziaren lema eta instrumentuak bigarren mailan gelditzen dira azpitik askotariko sonoritateak marraztuz: pop-a,

rock gogorragoa, punk-rocka, punk-pop-a eta metal tanta neurtu batzuk. Bestalde, abesterakoan *tempo* desberdinak aukeratzen dituzte, abestuz, erreztatuz eta inoiz repeatuz. Eta ezin ahaztu, abesten dutenean zabaldu nahi duten mezuari berebiziko garrantzia ematen diotela eta maila askotako burujabetasunaren aldeko korrontean eragiteko idazten dutela.

www.myspace.com/sirokataldea

Siroka

«Obamari edo Bushi ez diogu zertan kantarik egin; gurean bada kritika nori zuzendu»

Mariaren ahotsa instrumentuen gainetik dago nabari. Mezua da garrantzitsuen?

Bai, jakina. Musikaren bitartez gure ekarpena egiten saiatzen gara. Musika bozgorailua da eta gure haserreak, ideologia, itxaropenak eta borrokak kontatzeko erabili nahi dugu. Baina egia da baita ere musikari, estiloari eta gure irudiari garrantzi handia ematen diogula.

Melodia gabe ez dago iraultzarik?

Bai, egon badago. Baina iraultza egiteko molde ezberdinak egonda, musikalki ere aukera zabala existitzen da. Taldeko mutilok orain arte eremu zaratatsua goetan aritu bagara ere, beti gustatu izan zaigu gauza berriak probatzea. Mariak sortzen dituen melodiak eta abesterakoan duen jarrera, gure musikaren gordintasunari elkartu-

ta, iraultza egiteko oinarri onena izan daiteke.

Maitasuna eta gorrotoa askotan eskutik doaz?

Zerbait edo norbait maitatzen ez baduzu, zaila da axola ez zaizun zerbaitengatik gorrotoa sentitzea. Guk gauza asko maite ditugu. Gure lagunak, herria, familia, ingurunea, izaera, musika, kultura, askatasuna... Lagunak bahitzen dizkigutenak, herria zanpatzen dutenak, gure

izaera moldatu nahi dutenak, sakanatzen gaituztenak, beraien onuragatik baino jokatzeko ez dutenak, debekuak ezartzen dituztenak... gorroto ditugu eta horrela adierazten dugu gure kantetan.

Sahara gabe bada Siroka? Eta Euskal Herria gabe?

Sahara eta Euskal Herria bezalako herri zapalduak izaera propioa dute, eta izaera horren arabera biziraun dute inguruko estatuek beraien aurka

bideratutako gorroto guztiaren gainetik. Sirokan ere, izaera eta jarrera definitua duen talde gara. Ez diogu Obama edo Bushi kantarik egin behar, hemen gurean badugulako zer esan eta nori zuzendu gure kritika, maitasuna edo gorrotoa. Sirokak ere Saharak eta Euskal Herriak bizirauteko izan duten kemena izatea nahiko genuke; hala bedi! ■



Ezpalak

JON TORNER

Zuzenekoan panorama jasoko du Musika Zuzenean webguneak

EUSKAL HERRIKO areto, gazte-txe, taberna eta plazetako zuzeneko kontzertuen berri emango du



GAU ILUNAK

www.musikazuzenean.com webguneak. Koldo Ota-mendi musikazale eta kazetariak sortua, hainbat kolaboratzailearen parte-hartzea izango du proiektuak. Kontzertuen agenda, kronikak, argazkiak eta bideoak bilduko dituzte webgunean. "Areto bakoitzak, gazte-txe batzuek eta musika taldeek euren MySpace, Facebook edo webgunea dute. Baina han bildutako informazioa nekez heltzen da taldeen jarraitzaile fidelengandik harago. Ekitaldi ugari ez dira ezagutuzera ematen. Musika Zuzenean horretarako sortu da, eta Euskal Herrian egiten den musikaren erreferentzia

Nazioartera begira jarri dira Alberdania eta Erein

NAZIOARTEKO merkatuan zirkulazio handia duten (edo izango duten) liburuak atzeman eta euskarara itzultzea, inguruko hizkuntzetako itzulpenen epe berdintsuetan edo lehenago. Horra Alberdania eta Erein argitaletxeen hitzarmenaren ondorioz sortu den Batera sail berriaren helburua. Lehenengo bi lanak Suzanne Collinsen *Dena sutan* eta Arnaldur Indridasonen *Hilobiko isiltasuna* nobelak dira.

Kimuak-eko bederatzi filmak 800 jaialditan emango dituzte

HAUTAKETARAKO inoiz baino film gehiago aurkeztu dituztela (72) eta maila urtetik urtera hobe delako kon-tuan harturik, aurreko film labur bat gehiago sartu dute Kimuak katalogoan: bederatzi guztira. Hona nazioar-teko 800 zinema jaialditan parte hartuko duten peli-kula hautatuak: *Amár*, *Artalde*, *Ondar aboak*, *Exhibition 19*, *La gran carrera*, *Khorosho (Todo bien)*, *El premio*, *Daisy Cutter*, *La cortadora de margaritas* eta *Un novio de mierda*.

Elai Alai Gernikako (Bizkaia) dantza taldearen historia eta nondik norakoak gogoratzeko eta bertan dantzatu duten guztien lana eskertzeko, liburua argita-ratu du Txomin Unzuak: *Gernika-Lumoko Elai Alai XX. mendean*. Hirurehunetik gora orrialdez eta beste horrenbeste argazkiz osatutako bilduma horretan lau-rogei urtetik gorako ibilbidea jaso du. 900 bat lagun dira guztira, historia honetan biltzen diren protagoni-stak.

Jesus Mari Lazkano margolari bergararraren lanak jarri dituzte ikusgai Bilboko Arte Eder Museon, *Lazkano. Arkitekturatik naturara* izenburupean. Artistak berak egin du hautaketa, inongo komisariorik gabe, ikusleekin lotura areagotu nahian. 80 lan baino gehiago paratu ditu artistak, eta horietatik 20 obra sekula publikoaren aurrean erakutsi gabeak dira. 2011ko urtarrilaren 16ra arte egongo dira ikusgai.

Bilblogari lehiaketak Bilbon euskara sustatzea du xede. Hango blogari euskaldunei zuzendurik dago Udalak eta Nontzeberri webguneak sortutako ekime-na. 15 eta 35 urte bitartekoek har dezakete parte eta lanak azaroaren 22a baino lehen aurkeztu behar dira. Blog pertsonal onena, taldeko blog onena, blog tema-tiko onena eta blogik originalenari, bakoitzari 300 euroko saria emango diote.

Zientziategia webgunea jarri du abian Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza Sailak. Unibertsitatekoak ez diren irakasleei zuzendurik dago, eta albisteak, agen-da, loturak eta zientziaren inguruko baliabide gehiago eskainiko ditu. (www.zientziategia.euskadi.net)

● **Pedro Elozegi Gasteizko Folklore Akademiako zuzendariak Euskonews & Median:** «Hasieran, jen-deari kostatu egiten zitzaion dantzatzea. Orain, gero eta gutxiago gertatzen da hori. Izan ere, lehen, trikiti-xa- edo aurreko-txapelketetako dantzari ia perfek-tuen eredu zen nagusi, eta, ondorioz, dantzan ez zekitenak beldurtu egiten ziren. Baina hori ez dugu eredutzat hartu behar; bakoitzak nahi duen bezala aritu behar du. Aihotz plazaren babespean, gehiago ausartzen gara, nonbait. Handik ez da igarotzen jende asko, nahiko ezkutuan dago... Bertan, errazagoa da gainerakoan aurrean biluztea, txoko babes horre-tan ez baitzaitu ia inork ikusten, eta, azkenean, gutxiago kostatzen zaizu dantzan hastea».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarak

UNAI BREA

Hernan Cortesek zapaldutakoen memoria


Aztec. Gary Jennings. Atheneum Books (1980).

GARY JENNINGS (1928-1999) estatubatuar idazleak hamabi urte eman zituen Mexikon, herrialde hartako historia ikertzen, eta emaitza “trilogia azteka” deritzona izan zen. Hirukoteko lehenengo alea *Aztec* nobela bikaina da, 1980koa; hurrengo biekin ez zuen maila bera erdietsi, baina lasai, ez zaitzala “trilogia” berbak nahastu: *Aztec*-en kontatzen den istorioa beregaina da eta ez dauka, zorionez, ondorengo bi saio ustelagoen beharrik.

Zorroztasun historikoari ez dio ezer zor Jenningsen eleberriak. Izan ere, Virginian jaiotako egilea gehiago nabarmendu zen zorroztasun horregatik, bere idazle dohai-nengatik baino. Hala ere, eta esku artean hartzean ikaratuko zaituen arren –ia 900 orrialdeko haritzarra da–, hasi eta berehala harrapatuko zaitu liburuak. Higuina sortze-

raino bortitzak diren pasarteak maiz tartekatuta, *Aztec*-ek mexika herriko gizon baten bizitza kontatzen du –zuzenagoa zatekeen *Mexic* izenburua–; bera- ren bitartez Jenningsek gaur Mexiko esaten zaion lurralde horretako herrien bizimodua deskribatzen digu, espainiarrak iritsi aurreko urteetan eta baita konkistaren hasieran ere.

Historia ofizialak dioenaren kontrakorik esan gabe, gertatutakoa konkistatuaren ikuspuntutik azalduz haize berria eskaintzen du nobelak. Gainera, zirrikitu bat aurkitzen duen bakoitzean Jenningsek bestelako bertsioa eskaintzen du: esaterako, bere ustez Motecuzoma benetan nork hil zuen esaten digu –Historiak argitzeke dauka–, eta Malintzin traidorearen jatorria testu-liburuetan aipaezina litzatekeen eran agertzen du. Kasik esango nuke traidore modura aurkezte hutsa eskertzekoa dela, beti espainiarren bertsioa entzutera ohituta gaudenontzat. ■



BIZKAIA
BERTSOLARI
KAPARRAKA 2010

3. KAPARRAKA

urriaren 24an,
AULESTIKO
TORREZELAI
FRONTOIAN
17:30ean

MIKEL GOIRIENA
GORKA OSTOLAZA
ARRATE ILLARO
IBON AJURIA
XABAT GALLETEBEITIA
PERU VIDAL

Gai-emotak:
LEIRE BILBAO

FLAZ, HAZP, GAT .com


Bizkaiko
BFA DFB
bbk
LEI TRARRERO KIAL
MANERUNAZOIA
hitza

LAGUNTZAILEA

argia

ANA ZAMBRANO

Gaia: Abeslari xiberotarra



	J	Z	A	M	U	O	
Z	A	M	B	E	A	X	A
S	A	T	E	A	R	I	
M	A	I	T	E	A	R	I
E	H	E			O	N	I
E	R	T			B	E	Z
C	D	X			A	R	G
A	P	O	O	A	O	Z	I
A	M	A	R	E	N	A	B
E	S	T	R	E	S	N	A
E	N	E	A	Z	E	R	E
					O	A	S

Nairobuitarra ^{rekin} bidaia jolas

"Nairobitarra: mundua
ezagutzeko jolasa" k
tokian tokiko
bitxikeriak
ezagutzeko aukera
eskaintzen dizu.

33 €

Harpidedunek:
-15%

Aukeratu
kontinentea,
ibilbidea, bota dadoa
eta ekin bidaiari.

8 urtetik
gorakoentzat

eskaerak

943 37 15 45 • denda@argia.com
Ohiko salmenta puntuetan

 **argia**



Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Bizitzeko planeta egokien bila



WWW.ESO.ORG

GLIESE 581 IZARRAREN inguruan biraka ari diren beste bi planeta detektatu dira; izarrekiko duen distantziaren arabera, bizia posible izan daiteke horietako batean.

Paul Butler eta Steven Vogt astronomo estatubatuarrek iragarri berri dute aurkikuntza. Horrela, aipatu izarraren inguruan biraka ari diren sei planeta ezagutzen ditugu dagoeneko. Orain arte G581b, G581c, G581d eta G581e planetak ezagutzen ziren, baina ezinezkotzat jotzen da horietan bizia

egotea, izarretik hurbilegi baitaude.

Berriki aurkitutakoak Gliese 581f eta Gliese 581g dira. Azken honek 37 egun behar ditu izarraren inguruan bira egiteko, eta beti aurpegi bera erakusten dio izarrari, gure ilargiak Lurrarekin egiten duen antzera. Planetaren alderdi bat beroegia izan daitekeenez eta bestea hotzegia, bi aurpegiaren arteko eremuan dago probabilitate handiena bizia aurkitzeko.

Aurkitutako beste planetak, Gliese 581f-k, 433 egun behar ditu izarraren inguruan bira egiteko. Astronomoek uste dute izarretik urrutiegi dagoela bizi baldintza egokiak izateko.

Urakan gehiago itsaso berdeetan

URAKANEN SORLEKU EGOKIA izaten dira aire hezea, ur beroa eta haize bereziak elkartzen diren itsasoak. AEBetako MIT eta NOAA ikerketa zentroetako ikerlariak beste ezaugarri bat gehitu diote aurreko multzoari: itsasoaren kolorea. Hain zuzen ere, ur berdexkak dituzten itsasoak egokiagoak dira urakanen sorrerarako, ur gardenak dituztenak baino.

Ozeanoetako uren kolorea aldatuz doa, besteak beste fitoplankton kantitatearen arabera. Zenbat eta fitoplankton gehiago izan, hark eguzkitiko argi gehiago xurgatu eta ingurua gehiago berotzen du. Horrek –aipatutako aire eta haizeen eraginei gehituta– urakanen genesia indartu dezakeela uste da, baina ikerlariak argi utzi dute datozen urteetan sateli-



BLOG.NUESTROCLIMA.ORG

Soken teoria laborategian frogatu liteke lehenengoz

Azken 25 urteotan sona handia hartu du soken teoriak, baina orain arte ezin izan da haren froga esperimentalik lortu. Mike Duff-ek, Londresko Imperial College-ko fisikariak, bide bat aurkitu du froga hori lortzeko: lotura kuantikoak soken teoriak aurreikusten duen bezala gertatzen direla demostratzea.

<http://ttiki.com/17454> (Gaztelaniaz)

Dinosauro aztarnategia aurkitu dute Frantzian

Europar inoiz izandako dinosauro belarjalerik handienaren aztarnategia topatu dute Frantziako Angeac eskualdean. Hilabete eskasean egindako indusketetan 400 hezur baino gehiago aurkitu dituzte.

<http://ttiki.com/17455> (Frantsesez)

Erlatibitatearen Teoria bertatik bertara

Erloju atomikoak egiten dituen NIST erakunde estatubatuarrek frogatu egin du bata bestea baino 33 zentimetro gorago dauden bi erlojutan denbora ez dela berdin igarotzen. Hain zuzen ere, beheko erlojuan 79 urteko segundoraren 90 milioiren polikiago igarotzen da.

<http://ttiki.com/17457> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Penipe

HASERRE ASARREA DUT asarrea haserre zuzenduz okertu didatelako. Lertxundi, gorbeldi eta perretxiko asarreak, ikaragarri handiak, itzelak badira bazterretan, eta, India aldera bidaiatzeko aitzakia behar eta, duela hamar bat urte txoko honetantxe aipatu nuen pikondo bat ekarri nahi dut tartera. Garai hartan asarrea zen, zenbat hazi ote da, baina, hamar urte hauetan?

Bisita egin beharko diogu...

Bengalako pikondoa da, *Ficus benghalensis*. Pikondoa,



WAEI OMAR

Ezkerrean, Bengalako pikondoa (*Ficus benghalensis*). Azpian, ashoka (*Saraca asoca*).



NMPB.NIC.IN

Ficus generokoa delako, banyan zuhaitza deitzea ego-kiagoa litzateke, orde. Gandhiren ama hizkuntza izan zen gujaratiko hitza da banya, eta merkatari, trantante adierazten du, ez zuhaitza. Hirietako kale bazterretako zuhaitz hauen itzalpean egiten ziren tratuak, nonbait. Indian, Karnatakan, Bangalore aldameneko Ramohalli hiriko banya zuhaitz asarreari Dodda Alada Mara deitzen diote. Hona bera: 400 urte ba ote dituen aipatzen da eta 20.000 metro koa-droko itzala ematen omen du. Tratu galantak egin daitezke hor! Bere senide ezagunenetako bat Kanbodian bizi da, Angkor Wat tenpluko hormetako harritzarrak azpian hartuak dituenak. Zuhaitzak maitemina eta harriek bere minak bertan errezatuko dituzte...

Indian, banya sakratua dute, baina gurtu, beste zuhaitz bat gurtzen dute. Ashoka zuhaitza, *Saraca asoca*, hostaia iraunkorra eta lore gorri usaintsuengatik baino gehiago bere izaeragatik da ezaguna. Literaturan, ohituretan, folklorean, erlijioan etxeko dute. Bere loraldiari lotutako jaiak ospatzen dira. Ugalkortasunaren adierazgarri dute hinduistek eta budistek, eta azken hauentzako ikus nagusietakoa da, Buda bera ashoka zuhaitz baten azpian erditua izan omen zen eta. Jainistek eta inguru haietako beste erlijioetakoek ere oparo gurtzen dute. Inguru haietako hizkuntzatan makina bat izen badu. Sanskritoan soilik hamasei, ashoka horietako bat. Ashoka honek mina edo pena ematen ez duena edo minik edo penarik gabekoa adierazten du. Penipeia.



JAKOBA ERREKONDO

Urgulgo amonak

Donostiako Urgulgo ibilbide batean platano (*Platanus x hispanica*) errenkada bat bada. Galantak. Koadrila ederra osatzen dute. Beren kai gaineko talatik zer ez ote dute ikusi amonok. Ibilbidea dotoretzeko, aspaldi, harresia eta haren gainean lorontziak jarri zituen bateren batek. Platanoak bereira, harresia azpian hartu eta lorontziak hankaz gora badoaz. Kontuz behintzat aulki horretan eseri, amonak indarrean dira eta...

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

André Courrèges, ilargiko nekazaria

Arrastoak

Altamira berriro zabalduta nahi dute bisitarientzat



Ezkerrean, Courrègesen 60ko hamarkadako diseinuak, euskal jostunaren ezaugarri nagusietakoak nabarmentzen dituztenak: kolore gorria eta minigona. Eskuinean, André Courrèges bera.

PARIS, 1975. André Courrèges diseinatzaileak Aro Espaziala izenburuko udaberri-udako bilduma aurkeztu zuen eta modaren munduan iraultza ekarri zuen emakumezkoen jantzi sorta hark. Courrègesen lanaren kutsu futurista urrun zegoen bere sorterriko frontoietatik. Edorta Kortadik 1974an Zeruko ARGIAN egin zion elkarrizketan hala aurkeztu zuen moda sortzailea: “André Courrèges Nafarroa Beherekoa da. Espainiolez ederki mintzatzen da. Eta euskaraz, behar denean, ez da gibel gelditzen. Alabari izen euskalduna ezarri dio. Pilotan ere egin ohi du”.

Hamar urtez Balenciaga maisuaren ikasle aritu eta gero, bere enpresa sortu zuen. Mary Quantekin batera minigonaren sortzailetzat jo ohi da, 1965ean bertan jostun britainiarren gona laburra modernizatu eta hedatu baitzuen. Itxura metalikoko ehunak eta plastikoak erabiltzen lehena izan zen. Forma geometriko eta eroak sortu zituen. 45 urte geroago zaharkituak geratu ez diren diseinuak dira. Gazteentzako arropa

erosoa egin zuen, goi mailako jostuntzako bezero nagusiak aristokraziako emakume zaharragoak zirela jakitun. Hala, ez zuen beharbada Chanel, Dior edo Balenciagaren beraren ospe handia lortuko, baina bere asmoa goi jostuntza demokratizatzea zen, ekoizpen eta banaketa kostuak murriztuz. “Borroka eta lan egiten duten izpiritu gazteko emaztekiak jantzen ditut. Besterik ez”, esan zion Zeruko ARGIARI.


“Loreekin mintzatzea zait gustatzen, lore grisik ez baitago. Koloredunak dira. Nik egin jantziak ere halaxe izan daitezela nahi dut. Mundu alaiago bat egin nahi nuke”. Kolore biziek hainbesteko garrantzia zuten bere diseinuetan, ezen hainbestetan erabili zuen mitxoleta gorriari *Rouge Courrèges* esaten baitzaio oraindik.

“Ilargiko nekazari bat nauzu. Beti nere irudimenean aztarrika ari naiz. Ez zait besteen kritzia axola. Milioika urtetan dabil mundua itzulika. Bizitza bat ez da ezer asko. Jendea joan egiten da”. Baina André Courrègesek 87 urte ditu eta oraindik lanean ari da.

ALTAMIRAKO (Espainia) kobazuloa publikoari berriro irekitzeko aukera aztertzen ari da Altamirako Museoko Patronatua. Lan batzordea osatu dute, eta azaroan bisitaldi mugatuak antolatzeke erabakia hartuko dutela aurreikusten da.

70eko hamarkadan kobazuloa labar pinturak ikustera urtero 175.000 pertsona joaten ziren eta horrek kalte izugarria eragin zien margoei. Horregatik, 1977an koba ixtea erabaki zuten. 1982tik aurrera bisitari kopurua mugatuta berriro ireki zuten, eta 2002an atzera itxi. Ordutik hona 2,5 milioi bisitari inguru izan ditu ondoan egingutako erreplikak.

Lascauxeko (Frantzia) labar pinturek kalte atzeraezinak jasan zituzten bisitarien erruz. Ekaingo kobazuloa, aldiz, beti itxita egon da aurkitu zutenetik eta erreplika bisita daiteke gaur egun. Aditu guztiak bat datoz Gipuzkoako margoak oso egoera onean daudela neurri horri esker. Altamiran zergatik jarri nahi dute arriskuan historiaurreko altxor bikaina?



WWW.QUESABESDE.COM

Jonan Fernandez

«Espektatiba faltsuek desorientatuak bizi gara»

Tolosa, 1962. Elkarri-ko koordinatzailea izan zen hamalau urtez. Baketik zentroko zuzendaria da 2006ko urriaren 14tik. Pertsona izaten hezi (8 ikaskuntza) liburuaren egilea da. Liburuaren arrastoan iritsi gara Arantzazuraino.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

“Egunero berregiten den filma dugu bizitza” esaldia azpimarratu dugu zure liburuan, besteak beste.

Baketik-en ari garenok, pertsona bere baitatik aldendu daitekeela diogu, bere baitatik urrundu eta bere burua analizatu dezakeela. Hau da, pertsonak bere izaera esperimentatzen ahal du eta bizitza film

bat bailitzan ikus. Nik goiz honetan egin dudana ikus eta aztertu dezaket, ongi edo gaizki egin dudana, eta ea hobetu dezakedan, alegia. Gaitasun hori gizakion izari eta ezaugarria da. Areago, gaitasun horrek aukera ematen digu bizitzaren gidoilari ere izateko. Bizitzaren hurrengo kapitulua berbideratu

dezakegu. Neurri batean gure bizitzaren zuzendari izan gaitezke.

Pertsona izaten hezi baino lehenago bi liburu idatzi zenituen. Zer dira liburuok Baketik-en ibilbidean?

Lehenak (*Ser humano en los conflictos*) gatazkei etikoki aurre egiteko modua aztertzen du. Gatazken era-





Bere burua berak egindakoa

Juan Garmendia Larrañaga tolosarrak ARGIAN esana: "Asko balio du, meritu handiko gizona, bere burua berak egindakoa, Jonan Fernandez Erdozia da hori".

Eskertzen dizkiot hitz horiek Juanitori; bihotza ukitu dit. Ez naiz meritu handiko pertsona, baina polita da esan duena. Txikitatik ezagutzen dut. Nire aitona-amonak, erdoziatarak, Etxarri Aranatzetik etorri ziren Tolosara; Juanitoren familiaren etxeko ganbaran bizi izan ziren alokairuan. Gure familiaren jatorria oso umila da.

Bere burua berak egindakoa...

Ez dut unibertsitateko ikasketarik. Bizitzak eta neure intuizioak bultzatu ninduen beste bideetan erantzunen bila joatera. Hamasei urterekin

atera nintzen mundura, motxila harturik. Autodidakta naiz, neronek osatu dut nire burua.

Baketik zentroan gaude. Galdetu al diozu zure buruari nola iritsi zaren Arantzazuraino?

Bai, hainbat aldiz, eta segitzen diot galdetzen. Lau urte daramatzat hemen. Duela bost urte ez zitzaidan burutik pasatzen inolaz ere, egun proiektu honetan izango nintzela. Halere, bizitzan ibilitako bide guztia leku honetara iristeko ikaskuntza izan dela sentsazioa dut.

Espiritualtasuna bizi duzun seinale.

Bai. Nire burua espiritualtasunera zabaltzea faktore funtsezkoa izan da.

"Espiritualtasuna gizakion berezko izaria eta ezaugarria da. Besterik da fede erlijiosoa, espiritualtasunean bermatuta, harago doana".

Baketik-en bizitzarako funtsezkoa argitzeko giza esperientziaren ikaskuntzetan oinarritzen gara. Ikaskuntza horiek zortzi esperientzia dira –lau, hiru eta atal batean antolatuta–. Esperientziok halere, prozesua lantzen hasi orduko pertsonon baitan daude. Alegia, ez da deus berririk ikasi behar, pertsona bakoitzarengan dagoen esperientzia argitu behar dugu. Hori da gakoa.

Esan nahi baita...

Gizakiok, izan euskaldun, txinatar edo austriar, guztiok esperientzia mugatua daukagula. Pertsona mugatuak gara, esker onaren muga daramagu, kontzientziari entzuteko edo giza duintasunaren esanahiaren mugarekin bizi gara. Esperientzia horiek guztiak gure baitan daukagu, heziketarako ahalmen handiak dira eta horiek argitu behar ditugu te bizitzaren oinarria.

Espiritualtasunak lekua dauka liburuan. Espiritualtasunak ez du nahitaez erlijioetasuna esan nahi, halere.

Baketik: Baketik-en dugun helburuetako bat ulergarriak izatea da. Arantzazun gaude, erlijioaren nortasun gunea, baina gure nortasunaren ezaugarria sinestunei nola sinesgabezi begira aritzea da. Bigarrenik: nahasmendu larria dago erlijioaren eta espiritualtasunaren artean, eta ondorioz, gizartearen parte oso inportante batek espiritualtasuna alboratu du, uste du espiritualtasunak ez duela ezer ikustekorik bizitzarekin. Guk, aldiz, espiritualtasuna gizakion berezko izaria eta ezaugarria dela diogu. Besterik da fede erlijiosoa, espiritualtasunean bermatuta, harago doana. Gizakiak izari espirituala gutxietsi du eta hori dramatikoa da. Alabaina, izari espirituala

"Nahasmendu larria dago erlijioaren eta espiritualtasunaren artean"

bakitasunetan ezarri den logikarekin kontrastatzen du, ez du bat egiten gatazkei aurre egiteko erabili ohi den metodologiarekin. Gure ustez, ez dago gatazka ongi konpontzerik, pertsona norberak ez badu bere buruarekin daukan gatazkaren egiazkotasuna planteatzen. Hau da, besteekiko daukan gatazka bere buruarekiko daukan gatazka ere badela onartu behar du. Arazoak argipen etiko bat eskatzen du: "Zertan ez dut nik egia osoa edota zertan du besteak arrazoiz?".

Nondik hasten da elkarbizitzaren arazoak konpontzen, ordea?

Galdera horretatik sortu zen *Vivir y convivir mejor* liburua. Oinarritzko lau ikaskuntza eskaintzen dituena. Horiei beste lau gehitu dizkiegu *Pertsona izaten bez* liburuan. Zortzi ikaskuntzak, bizitzan hobeto kokatzeko eta bizikidetzan hobeto lantzeko zuzenduta daude.

Liburuan zazpi ikaskuntza lantzen dira funtsezko batera iristeko: maitasunaren ikaskuntzara.

berreskuratzeak lotura zuzena dauka pertsonok dauzkagun erronkekin. Liburuaren ikaskuntzak gizakion izari espiritualarekin lotuak daude, ez dute zertan erlijioarekin lotuak izan behar.

**"Maitasuna bizitzarako
inportanteena da
existentziaren
angustia gainditzen
laguntzen duelako"**

Erljioaren garaia iragan al da?

Ez dut uste. Krisi larrien garaia bizi dugu: hala ekonomikoa nola ingurumenarena, baita krisi existentziala, psikologikoa edota pertsonala ere. Ondorioz, gizarteak "bilaketa" lantzen du. Bilaketarako bide anitzak, daude eta horietako bat bide erlijiosoa da. Besterik da erlijioek gizartea bilatzen ari den beharrezanez argi eta garbi erantzuten ote dioten.

Nola bizi duzu zuk erlijioa?

Nik hamasei urterekin erabat moztu nuen mundu erlijioso eta kristauarekin, ergelkeria iruditzen zitzaidalako. Gure belaunaldiari erlijioa modu puerilean edo funsgabeaz azaldu ziguten. Oso zaila zen hari atxikia bizitzea. Gerora, pueriltasun horren orripena barnean geratzen zaizu. Ordea, baten batek erlijioa modu berrituan azaltzeko zortea baduzu, heldutasunez, bada erlijioa bestera ikusten duzu. Nik kristau fedea berriz ere jasotzeko zorte izan dut, berau heldutasunez jasotzeko pertsonekin topo egin dudalako. Horrek erlijioa beste modu batez bizitzen lagundu dit. Arantzazun eta Baketik-en ari-
tzeak laguntzen du horretan.

"Nire aiton-amonak, eskolara joan gabeak, haiek heziak izan ziren, giza-formazio sendoa zuten. Nola lortu ote zuten? Zer egingo zuten haiek gure artean?" idatzi du Xabier Etxaniz Erlek ARGIAN. Zer iradokitzen dizu?

Gure aitona-amonengandiko gaur egunera aldaketa handiena giza ikaskuntza esentzialen

XIBEROA, LAPURDI ETA BAXENABARREKO BERTSULARI XAPELKETA FINALERDIAK 2010

WWW.XILABA.NET



LVHVSO
URRIAREN 16AN - 17:00ETAN
HARRI XURI ARETOAN



Ametz Arzallus
Odei Barroso
Xumai Murua
Eneritz Zabaleta
Gillen Hiribarren
Ekhi Eremundegi

Laguntzaileak:

argia



“Kontzientziari entzuteko edo giza duintasunaren esanahiaren mugarekin bizi gara”.

inguruan izan da. Gure munduan zenbatezinezko espektatibak daude bizitza, elkarbizitza eta zorientasunari buruz. Espektatiba hauek erabat desorientatuta gauzkate. Espektatiba gezurrezko hauek ez ziren existitzen gure aitona-amonen garaian, bazeuden gauza hobeagoak eta txarragoak, baina onen artean ez zeuden bizitzari buruzko egungo espektatiba faltsuak.

Egun, hitzek esanahi bikoitza dute askotan. Konpromiso hitza, adibidez.

Hitzen zentzua ongi bereizteko eta argitzeko bi galdera daude: Nondik? Eta zertarako? Zuk konpromiso hitza hartu duzu. Pertsona bat, kausa politiko edo humano baten aldeko militante sutsua da: “Zein pertsona emankorra!” diogu. Ziur? Zergatik? Zer lortu nahi du horrekin? Beste pertsonak laguntzea edo bere burua ongi sentitzea bilatzen du? Alegia, besteen aldeko konpro-

misoa onbera sentitzeko bada, ez da konpromiso emankorra eta interesgabea. Besterik da dohaintasunetik aritzea, hori da gakoa. Eta zertarako?: Beste pertsona autonomoagoa edo dependenteagoa izateko diharduzu? Hirugarren munduko kooperazioaren adibidea dugu: zertarako laguntzen ditugu? Independentek edo dependenteagoak izan daitezten? Nondik eta zertarako ondo jakiteak konpromisoa argitu behar du, apala izatea eskatzen du.

“Egia bilatzen duenak hautsa baino apalagoa izan behar du” esaten zuen Gandhik.

Izan ere, abiapuntua ez zarela egia-
ren jabe onartzea baita. Umiltasunaren definizioa zoragarria da: “Umiltasuna norberaren mugen ezagutza eta onarpena da”. Horren jakitun jardutea apal eta umila izatea da. Egiaren bila joateko berebiziko premisa da umiltasuna.

Badago halere, egia bat lurtarra: zientziaren egia. Bestea, berriz, erlijiosoa da: fedea behar duen egia.

Horren erantzuna paradoxikoa da. Ez dago definitibotzat azaldu daitekeen egia. Bizitzan ordea, egia baten alde aukeratu behar duzu, zure egia-
ren bilaketaren alde egin behar duzu. Erlijioa edo fedea bizitzeko moduak paradoxa hau onartzearekin lotura handia dauka. Horra baiezpena. Ez dago egia definitibo bati buruzko ziurtasunik, baina, nik sinetsi behar dut nire bidearen egiazkotasunean urratsak ematen segi ahal izateko. Areago, jainkoarengan sinesten ez duenak ere egia baten aldeko aukera egiten du.

Liburuaren lehen zazpi atalek maitasuna dute helburu. Maitatzea baina, zentzu espiritualean, ez dago modan.

Alabaina maitasunak ez du zentzu espiritualik, maitasuna espirituala da. Espirituala da edo ez da. Ez da materiala, dimentsio espirituala du, ez da beste ezaugarriak bezala. Maitasuna inportanteena da bizitzan, baina ez da esaten zergatik. Eta komeni da esatea. Gure tesia hau da: maitasuna bizitzarako inportanteena da existentziaren angustia gainditzen laguntzen duelako. Hiltzearen angustia, amaieraren angustia eta gure bidea iragankorra dela adierazten digulako. Maitasunaren esperientziak eta konfiantzak gainditzen dute existentziaren angustia. Maitasuna gakoa da bizkarrean daramagun existentziaren eta heriotzaren beldurra deskubritzeko. ■

argia.com Pertsona izaten bezí liburuari buruzko gogoeta gehiago.

SOLOZABAL
Eskura ezazu teorikoa 5 egunetan
edozein gidabaimenerako

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390
www.solozabalautoeskolak.es

LUAarkitektoak
hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitzak
prolektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

Eraikuntzarako materiala

GALPARSORO

Salmenta:
axulejo eta gresa
komunak · manparak · komuneko altzariak
obra hondakinen bilketa

☎ 943 300 145
Faxa: 943 300 012

Borda Berri industrialdea, 5. pab.
Andoain (Gipuzkoa)



* 7 urtetik gorakoentzat.

25
€

Prezioa



Harpidedun prezioa

Hartu zure ardi erromesa
eta ibilbidea jarraituz...
segi Jakue bidean beeeera.



ArdiBidez

mahai jolasa

ESKAERAK: Tel. 943 371 545 • www.argia.com • denda@argia.com

Literatura Unibertsala bilduma

Itzulpenak irakurle bila

Irail bukaeran, San Jeronimo egunean, Itzultzaileen Eguna izan zen. EIZIEk Literatura Unibertsala 20 urte mahai-ingurua atondu zuen, Donostiako San Jeronimo (ezin bestela izan) kaleko liburutegian.

MIREN IBARLUZEA

IRAILAREN 30A gorriz markaturik ageri zen itzultzaileen agenda eta egutegietan, San Jeronimo eguna baita, itzultzaileen patroia eguna. San Jeronimok ordura arte grekoz eta hebreeraz soilik irakur zitekeen biblia itzuli zuen latinera. Harena da, hortaz, *Vulgata* (herriarentzako edizioa) izenez ezagun den bibliaren itzulpen ofiziala. 23 urtez aritu zen lan horretan, 382. urte-tik 405. urtera artean. San Jeronimorena da, halaber, itzultzaileek sarri darabilten “*Non verbum e verbo, sed sensum exprimere de sensu*” esapidea –ez hitzez hitz, ez bada esanahiak ordeztuz–.

San Jeronimok legetxe, hainbat eta hainbat ordu eman izan dituzte itzulpen lanetan euskal itzultzaileek Literatura Unibertsala bildumako aleak euskarara ekartzea egokitu zaienean. Literatura Unibertsala bildumak aurrean 20 urte bete ditu eta EIZIEk (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen elkarteak) antolatutako mahai-inguruan, besteak beste, bildumaren Katalogo Orokorra banatu zen. Katalogoaren sarreraren egoki dio Lourdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburuordeak: “Literatura ororen loraldia, noski, ez zen etorri berez, bat-batean, besteei begiratuz eta besteengandik ikasiz baizik, hizkun-



Gotzon Egiak gidatutako mahai-inguruan Iratxe Retolaza, Xabier Olarra eta Lourdes Otaegi.

tza ustez hobe eta aberatsetan idatzitakoan oinarriturik hizkuntza landugabe eta larrekoaren mugak zabalduz, noranahiko bihurtzeko.

Literatura ororen loraldiaren aurrerakia idazle eta idazlan handiak ager daitezen, ezinbestekoak dira ifrentzuan itzultzaile eta itzulpen handiak; itzulpena ez baita hizkuntza baten biziberritzean badaezpadako makulu baldarra, emagin eta inude baizik. Itzulpena ekarle da, hizkuntza orotako ekoizpen baliotsuenak dakarzkiguna; eta eramaile, gure literaturarik onenaren berri ere beste hizkuntza ororen plazara daramatzana”.

Bilduma zabaldu nahian

Gotzon Egiak akuilari zutela, bildumaz jardun zuten Iratxe Retolaza, Xabier Olarra eta Lourdes Otaegi adituek.

Retolazak mahai-inguruan esana da itzulpenaren alorrean egin dela ahaleginik handiena hizkuntza literarioa aberasteko, baina kalitatea baduten arren eta eragiteko modukoak izan badiren arren, badirudiela Literatura Unibertsala bildumako aleak ez dutela euskal literatur sortzaileen belaunaldi berrian eragin, beste hizkuntza batzuetara itzulitako lanek hango idazleengan eragin duten modu berean. Horrez gainera, Literatura Unibertsala

bildumarako hausnarketa taldean egin izana goraipatu zuen, halakorik ez duela eta ikusi, kasurako, euskal literatur sistemaren komunitatean.

Olarrak itzultzaile legez hitz egin zuen, Literatura Unibertsala itzulpen duenak bihotz zati bat ere jartzan duela aitortuz, Literatura Unibertsaleko itzultzaileak ez duela mertzenario lana egiten goraipatu.

Literatura Unibertsalaren hutsunea gizarteratzean omen dago, eta irakurlearengana ez heltzeko zer gertatzen den aztertzea da. Non ikasten da Literatura Unibertsala irakurtzen? Lourdes Otaegi irakasleak, hezkuntza ertainetako irakasle gisa hausnartu zuen. Literatura Unibertsaleko aleak irakurtzera emandakoan emozio sakonagoak agerrarazten omen dituzte ikasleek, baina kontua da bitartekariak

Hogei urtez 153 ale

Literatura Unibertsala Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailaren eta EIZIEn lankidetzaz sortutako bilduma da. Hango eta hemengo 153 ale, orotariko hizkuntzetatik euskarara itzulitako literatur lanak denak ere, ekarri dizkigu ekimenak 1990etik 2010era bitartean. Lehen aroko liburuak Ibaizabal argitaletxeak emanak dira; bigarrenekoak, Alberdania eta Elkarrek. Argitalpena lehiaketa bidez esleitu zen bere sasoian, eta era berean esleitu izan dira urtero-urtero itzulgaiak: lehiaketa bidez. EIZIEk emandako itzulgaien zerrendatik hautaketa eginda, lagin bat aurkeztu behar izan dute itzultzaileek, eta EIZIEk izendaturiko epaimahaiak esleitzen ditu itzuliko diren lanen eta itzultzaileen izenak, urtean-urtean aurkeztutako itzulpen proiekturik onenak irizten dizkienei obra osoa itzultzeko beta eskainita.

“Orain, amaraunetik askatzeko, itzulpenek Venezia-
ra naramate, Don Ibaira naute eramaten, Comalan jar-
tzen naute puntuan, eta, ia oharkabea, euskararen
gondolan pasatzen naiz Gustav Aschenbachekin bate-
ra Zizpuruen Zubi azpitik, euskararen zaldian egiten
dut trosta estepetan barrena soldadu kosakoekin, eus-
karaz jarraitzen dut Juan Preziadorekin ere errege
karrikak Contlako bidearekin bat egiten duen lekuan,
munduko hizkuntza jantzi guztiak elkartzen diren bide-
gurutzean”.

Halaxe dio Anjel Lertxundik. Ezen ez baita ahuntzaren gaurdiko eztula Literatura Unibertsalak 20 urteotan gurera ekarritakoa. Itzultzailearen Egunerako prestatutako bideo-emanaldian halaxe zioten elkarriketatuek ere, gauza asko ekarri dituela Literatura Unibertsala bildumak: literaturaren altxor harrobia, euskal liburuaren katalogoa handitzea, trebakuntza itzultzaileentzat, euskararen normalizaziorako behar-beharrezkoa den literatura hizkuntza, irakurle ohitua... Lurdes Auzmendi, Bakartxo Arrizabalaga, Mari Jose Olaziregi, Koldo Biguri, Juan Gartzia, Anjel Erro, Patxi Baztarrika, Gorka Arrese eta Karlos del Olmo ikusi eta entzun genituen besteak beste aipatu bideo-emanaldian.

ahalegina egin behar dutela Literatura Unibertsaleko lanak ezagutze-
ko eta aukera egokiak egiteko. Eus-
kal literatur itzulpengintzaren
historiako pasarte polit bat gogo-
rarazi zuen halaber Otaegik, Ori-
xek Tormesko itsumutilarena eman
zuenean zati bat asmatuik eman
zuela-eta jazoera nola justifikatzen
zuen itzultzaileak berak eta haren
kritikari izandakoek. Testuaren
hizkuntza iragazpena egiteaz gain
“iragazpen morala” egin zuela
zioen Orixek, irakurlearen integri-
dadearen alde, eta garaiko pentsa-
moldeari erantzuten zion, kritika-
rien esanetan.

Mahai-ingurura gerturatutakoek
ere hartu zuten hitza. Itzultzaile,
idazle, itzulpengintza ikasleak...

ziren bertan, eta bukaeran, denek
ikuspegiak bildu zituen Gotzon
Egiak: Literatura Unibertsala bil-
dumaren etorkizunari begira itzul-

**Itzulgaiak aukeratzeko
irizpideak berraztertu
beharko dira, ez daitezen
izan, batez ere,
Mendebaldeko kanonen
araberako gizon idazle
zurien lanak**

gaiak aukeratzeko irizpideak
berraztertu beharko dira, itzul-
gaiak ez daitezen izan, batez ere,
Mendebaldeko kanonen araberako
gizon idazle zurien lanak. Irakurle

faltaren arrazoibidea ez datza
itzulpenean edo literaturan, arazo
psikosoziologikoei eragiten omen
diote euskal literatur irakurlegaiari.
Usadioak aldatzeko saioak egin
beharko dituzte bitartekariak,
eskolak berebiziko garrantzia
duela aipatu zelarik. Literatura
Unibertsalak molde berrietara
egokitzeko saioa egin beharko du,
eta irakurle orenen eskura izan,
saretik doan deskargatzeko
moduan, kasurako. Gurean, gaine-
ra, Itzultzailearen Egunean aipatu
auzi guztiak aztertzeke metodori-
k ez dago, itzulpen kritika akademi-
korik ez baita egiten.

Galdera gehiago, hortaz, erantzun-
ak baino Itzultzailearen Egunean.
Baina, hori osasungarria da oso. ■

**Zure itzulpen
eta argitalpen lanetarako
zerbitzu integrala**

- ✓ Hizkuntz eskaintza zabala
- ✓ Argitalpen lanak
- ✓ Zerbitzu integrala:
itzulpenak, zuzenketak,
diseinua, maketazkoa,
inprimaketa...

Geografia
3
ANIMALIAK
finès
french
euskara
englantia
español
catalonian
suomi
basc
català
finnois
français
anglès
catalan
francès
castellano
finnish
inglés
baski
catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

Narkis Balentziaga, 2. 20749 Arroa (Gipuzkoa) Tel.: 943 148 306 Faxa: 943 897 380
bakun@bakun-itzulpenak.net www.bakun-itzulpenak.net

30+10 mintegia, IMHk antolatuta

IMHk, Makina Erremintaren Institutuak, bosgarren 30+10 mintegia atondu du urriaren 21erako, bosgarren urtez. Enpresetan hizkuntza kudeaketa nola egin lantzeko jardunaldiak dira, eta Elgoibarren izango da goizeko jarduera. Hamabi hitzaldi prestatu dituzte interesen eta gustuen arabera partaideek aukeratu ditzaten. Enpresen emaitzak hobeak izateko intentzioz, hizkuntza kudeaketa bereziki lantzen duten hainbat esperientzia entzun ahal izango dira. Besteak beste ondokoak: CAFeko euskara ardura-

dun Joxe Begiristainek azalduko duena, Maquelsa/Konica Minolta-ko ordezkarien kontakizuna eta trenbideetako produktuen kalitate arduradun Igor Quincoces en azalpenak. Egitarau osoa helbide honetan: www.imh.es

Iñaki Uribe HABEko zuzendari

ALDIZKARI HAU interako karrajua.org webgunean irakurri genuen Eugenio Mujika HABEko zuzendariak kargua utzi zuela, edo utziarazi ziotela. Ondoren *El Correo* egunkariak adierazi zuen Mujikaren tokia hartuko zuela Iñaki Uribe Burgoa itzultzaileak.

Uribe Villabonako (Gipuzkoa) PSE-EEko zinegotzia da. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, aldizkari hau itxi bitartean, ez zuen albiste honi buruzko ezer esan. HABEko zuzendari aldaketaren notizia egiazkoa balitz Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan gertatzen den hirugarren kargu aldaketa litzateke. Igor Calzadak Berrikuntzako zuzendari postua utzi zuen eta Ramon Etxezarretak sailburuordetza.

Bake Epaitegi guztietan euskaraz erregistratzeko aukera

DUELA GUTXI Usurbilgo (Gipuzkoa) hiru amaren kexa jaso genuen txoko honetan. Haur jaioberriak ezin zituzten euskaraz erregistratu beraien herrian. Espainiako Estatuko Erregistroen Legeak 2005ean aitortu zuen jaiotzak, heriotzak eta ezkontzak euskaraz erregistratzeko eskubidea. Alabaina, praktikan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hamalau herri buruetan baino ezin zen halakorik egin. Dirudienez, 200dik gora Bake Epaitegietakoa sistema informatikoak ez zeuden prestatuta euskaraz erregistroak egiteko. Urtea bukatu baino lehen 2005ean aitortutako eskubidea gauzatzeko modua izango omen da.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Busturialdean lan eta bizi

Busturialdeko herritarrak mobilizatzen ari dira, hamarnaka alderdi politiko, sindikatu eta gizarte elkarte biltzen dituen plataforma sozio-politikoari eskerrak, Bizkaian dagoen Urdaibaiko eskualde eder horretan lan egin eta bizi ahal izateko irtenbideen alde. Bizkaiko Foru Aldundiak eta EAJk defendatzen duten Sukarrietako Gughenheim museoaren frankizia eraikitzeak erabakia gertuago dago, 200 milioi euro kosta daiteke, eta mobilizazioak ugaltu egin dira horren aurrean. Joan den astean beste pauso bat eman zen Bizkaiko Batzar Nagusietan, nahiz eta Eusko Jaurlaritzak ez duen ekimen hori babesten eta beste proiektu batzuk proposatzen dituen. Ez Bizkaiko Foru Aldundiak, ez EAJk, ezta Eusko Jaurlaritzak ere, ez dituzte kontsultatu euren proiektuak inguruko herritarrekin. Inposizio horiek salatzen dituzte mobilizazioek, herritarren erabakia errespetatzeko eskatuz. Azkeneko mobilizazioa joan den astean egin zen Gernikan, Bizkaiko Batzar Nagusien aurrean.

Busturialdean lan eta bizi herri plataformak gogorarazi du jada badagoela hainbat eragileren artean adostutako eta 1998an dekretuz onartutako plan estrategikoa. Horren helburua da, garapen jasagarriarekin bat eginik, jarduera sozioekonomiko guztiei bultzada ematea. Urdaibaiko museo berrirako aurreikusi diren 200 milioi euro horiek inbertsio produktibo eta sozialetara bideratzea eskatu dute. Busturialdeak 10.000 enplegu galdu ditu azken urtetan, lan postuak behar ditu sektore guztietan, eta ez Urdaibai turismo masiborako eskualde bihurtzea. Beren eskualdean lan egin eta bizi nahi dute. Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari gutxienez exigitu dakieke, behin betiko erabakia hartu aurretik, herritarrei galdetzea eta horien hitza errespetatzea. Aski da oposizioekin!

Juan Mari Arregi

BAHEA

Maria Luisa Garcia Gurrutxaga Eskola Kontseiluko buruak *El Diario Vasco* esanak: "Lehen Hezkuntzan, ama-hizkuntza gaztelania duen laugarren mailako ume batek, euskaraz ez du lehiakortasun linguistikorik. Baina zailtasun hori gainditi egiten da eta DBHko bigarren mailan jada ez dago arazo hori. Diagnosi-ebaluaketetan beste erkidego elebidunekin alderatu beharko da EAE, eta ez Errioxarekin (zerrendako lehen postuan dago), sistema ezberdinak baitira".

Tortura, erraza da ez ikustea

ESTRASBURGOKO epaia duela bi aste ezagutu zen: Espainiako Gobernuak 23.000 euroko kalte ordainak ordaindu beharko dizkio Mikel San Argimiro euskal presoari, honek bere garaian salatutako torturak ez ikertzeagatik. Nagusiki oharkabean joan zen albistea, baina balio izan du ERCKo eta beste talderen bateko diputatuek galderak egin ditzaten gaiaren inguruan.

Urriaren 25ean hasiko da Donostian Igor Portu eta Mattin Sarasolak salatutako torturen epaiketa. Hamabost guardia zibil daude auzipetuak. Besteak beste, fiskaltzak hiru urteko zigorra eskatzen du bi guardia zibilentzat eta beste birenentzat bi urtekoa atxilotuak torturatu izanagatik. Ez da sarri ikusten halako eszenarik eta ikusmin handia sortuko dela ez da zalantzarik.

Ia urtero NBEak atxilotuen inkomunikazioari buruzko legedia bertan behera uzteko eskatzen dio Espainiako Gobernuari.

Dozenaka dira torturak salatzen dituzten atxilotuak, joan den astean Xabier Atristainek eta Juan Carlos Besancek egin zuten moduan. Baina berdin da, torturak ez du existitzen Espainian, eta Euskal Herrian ere ozta-ozta agertzen da errealtate zer den eta zer ez ebazten duten hedabideen ispilu horretan.

Atristainek eta Besancen tortura salaketak ezagutu biharamunean hedabide mordoska arakatu nituen sarean, baina ezer ez, salaketa horien arrastorik ez: *El País*, *El Mundo*, *El Correo*, *El Diario Vasco*, EITB.com... Venezuela, FARC eta ETArek balizko harremanei buruzkoak denak eta bi. Eta logikoa da, albistea hor dagoelako. Baina ustez, iturri beretik atera da hori guztia, Atristainek eta Besanceren ahotik, eta hauek, halaber, torturak ere salatu dituzte.



Hemengo egunkarien artean *Gara*-k, *Berria*-k eta *Noticias* taldekoek eman zuten salaketaren berri. Ezin zaie eskatu hedabideei salaketa hauek sinestea, baina bai behintzat salaketa horiek egin dituztela aipatzea. Are gehiago aurreko egunetan Venezuelako enbaxadorearekin gertatutako guztia ondoan.

Ezikusiarena egin gura ez bada, ez da posible halakorik ez aipatzea. Ez da posible zaborrontzi baten erretaren aurrean halako sentsibilitatea agertzea eta tortura salaketen aurrean halako indiferentzia. Eta bai, alderantziz gertatzen dela ere begi bistakoa da, baina batak ez du bestea justifikatzen. Garai berrian erronketakoa izango da bestearen sufrimendua islatzeko eta sentiarazko mekanismoetan sakontzea.

Espainiako erakunde publikoak gai dira milaka kamera jartzeko kaleetan, bertan zer gertatzen den zelatatzeko, baina ez dira gai hori bera modu txukun batean egiteko komisaldegietan, edo tortura salaketa jasaten duten komisaldegietan. Edo jartzen badituzte, gero ez dituzte irudiak erakusten. Agian ez dagoelako irudirik, agian ikusten dena ez delako egokia.

Teknikoki samurra beharko luke tortura ezabatzea. Inkomunikazio luze horiek bazterreratu, atxiloaldian konfiantzazko abokatu eta medikua- ren bisita baimendu. Tortura zantzu- rik dagoenean ikertu eta, dagokio- nean, zigortu. Baina horretarako presio soziala ere behar da, erakun- deena, hedabideena, alderdiena, herritarrena... Baina edukiontzi erreka begi bistan dira, tortura ez; torturatu eta torturatzailaren begietan bakarrik islatzen da.

CORBACHO MINISTROAK joan den astean Kataluniako balizko independentziari buruz esandakoak eskandalua ekarri zuten Katalunia- ra. Aspaldi ez da halako adierazpen mehatxugarriarik entzun. Hau da, ekonomikoki Kataluniak ez lukeela Espainiatik bereizteko arazorik, baina ez pentsatzeko hori traumatiko- koa ez litzatekeenik, "ez pentsa gauza baketsuak liratekeenik".

Egun ez da sinesgarria Kataluniak independentzia aldarrikatuz gero, Espainiak gerrarekin erantzun deza- keenik. Hala ere, arduragabekeria galanta dira adierazpenok. Batez ere, VIII. artikulua ospetsua hor dagoenean.

PELLO ZUBIRIA

Stuxnet-ek darakus gerrako lubakiak Interneten daudela

Malware edo iruzurrezko softwarea engoitik etxeko ordenadorean burukominak eragiten dizkigun birusa izatetik askoz urrunago heldu da. Stuxnet birusak erakutsi du Internet dela gerra berrien gudu zelaia, zeinetan pen-drive xume batek abiaraz baitezake txikizio handiak sortuko dituen eztanda katea. Galdetu Irango agintariei.

LAPURRETA JASAN DUTEN BANKUEK bezala, bihotzean informatikaz erasotako enpresa eta, batik bat, estatu asko ahalegintzen da gertatua disimulatzen, ahulguneak ezkutatzearren. Baina beti ezin da. Irango teknikariek atzerriko solaskideengana jo behar izan dute gutxienez beren 60.000 ordenadore kutsatu omen dituen Stuxnet birusarena nola konpondu asmatzeko.

Dio Wikipediak ordenadoreetako har hau joan den uztailean deskubritu zuela Bielorrusiako VirusBlokA-da antibirus enpresak. Sistema gauza omen da industriei espioitza egiteaz gain haietako gailuei programak eraldatzeko: “Stuxnet gai da birprogramatzeko PLCak, kontrolatzaile programagarriak, bide batez aldaketak ezkutatz. (...) Lehenbizikoa da, dakigula, helburutzat industriako azpiegiritura kritikoa erasotzea daukana”.

Siemens konpainiak industriako produkzio kontrolerako sortu informatikan eragiteko dago programatuta Stuxnet. Eta oso birus sofistikatua da. Siemensen instalazioak mantentzen eta horietako arazoak konpontzen urte asko daramatzan ingeniari batek deklaratu dio *Wired* aldizkari digitalari gizon baten hilabete edo are urteetako lanorduen emaitza metatu duela har horrek bere baitan.

Stuxnet baliatzen omen da orain

arte Microsoft korporazioaren Windows sistema operatiboari ezagutzen ez zitzaizkion segurtasun zuloez, Siemensen Simatic WinCC osagaiari erasotzeko, hau delarik produkzio kontrol programazio batzuetan kritikoa. Gainera, Taiwaneko RealTek konpainiari ostutako kriptografia giltza usatzen du segurtasun sistemak hausteko.

Ahalegin garesti horrek zerbaite-rako balio behar zuen... aurrez jakinez gero Iranek dauzkan lantegi atomikoetan, Natanz eta Bushehr-eko instalazioetan, Siemensen softwarea erabiltzen dutela makina batzuek.

Tarteka-marteka Interneteko erabiltzaileen artean zabaltzen diren birusen arteko beste bat gehiago bezala ez luke geratu behar Stuxnetek. *The Guardian* egunkarian gaiari jarraipen zehatza egin dion Josh Halliday-k idatzi du: “Segurtasunean adituek berretsi digute herrialde jakinetan kokaturiko industriguneen kontrako erakoa izan dela, eta Stuxnetek bere sofistikazioagatik gaina hartu diela aurretik izan diren antzeko atakeei”.

Gaiotan aditutzat jotzen dituen Symantec enpresakoengana jota, hauek argitu diote kazetariari harrak zulatutako ordenadoreen %60 Iranen daudela. “Stuxnet sortu duen taldeak dirulaguntza handia eduki behar izan du, bost-hamar laguneko

CNN agentziak dienez, argazki handia aterata dago Iranek Bushehr-en daukan zentral atomikoan, eta bertan kontrol lanetan ageri dena ingeniari errusiarra da. Irango gobernuak ukatu egin du erregai atomikoa esku-ratzeko martxan dauzkan zentrifugatzailiek kalterik izan dutenik Stuxnet birusaren eraginez, baina, aldiz, AEBetako aditu batzuek uste dute ez orain, joan den urtean ere antzeko beste eraso informatikoen ondorioz iraniarrek geldirik eduki dutela zentrifugatzailak horien laurdena bederen. Argazki txikia *Wired* hedabide digitaletik hartua da eta Keith Alexander jeneral iparramerikarra erakusten du, Pentagonoan ziber gerraz okupatzen den komandoko burua. Ziber gerra urrats berria da: orain arte Internet bidez egindako eraso gehienak lapurreta ekonomikoa zuten helburu, baina Stuxnet bezalako harrek arerioaren azpiegituren puntu minberak kaltetu nahiko dituzte.

taldea izan behar du gutxienez sei hilabetez horren prestaketan aritu dena”.


Segurtasun aferetan diharduen Lumension konpainiako buruetako baten hitzetan, Stuxnet da “malware mailan sekula eraiki den produkturik finduena” eta garrantzia handia dauka zeren “bere helburua ez da izan dirua lortzea, garrantzizko azpiegiturak kolpatu ditu bihotzean”.

Ziber gerran harrak tiraka

Militarrek aspalditik usaindu zuten har informatikoen alorra gerrarako etorkizun handikoa dela. 2008an, kontatu du *The Guardian*en Peter Beaumontek, AEBetako base militar batean apropos utzi zutela buruzagiek birus horietako bat zabaltzen. Kutsatutako pen-drive bakan batzuk utzi Irakeko gerran atzeguardiako lanak egiten ziharduen ekipo batean... kalkulatzu gizakia errez makurtzen dela lapurretara.

Esan eta izan, militar batek lapitz horietako bat ostu, beste ordenadore batean sartu eta hala eduki omen zituzten har informatikoz kutsatuta Irakeko gerraren ardura daraman Centcom-eko ordenadoreak: AEBetako armadako espezialistentzako 14 hilabeteko buruhaustea. Buruzagien ustez, txerto lana egin nahian edo.

Stuxnet ere helburu militarrez



sortu dela ziur daude aditu gehienak. Kaltetu nagusia Iran da, hemengo agintariak triskantz hain handia izan ez dela dioten arren. Iran berri funtsean Israel, AEB eta Erresuma Batuen jomugan dago, etenik gabeak dira azken bi urteotan haren kontrako eraso militarra gainean dela dioten zurrumurruak. Eta Stuxnetek kutsatu dituen programak energi banaketa sareetan erabili ohi dira, izan petrolio hodien kontrolerako edo zentral nuklearretan.

Oraindik goiz ei da Iraneko industriari zenbaterainoko kaltea egin zaion jakiteko: Stuxnet zabal-tzen ari da herrialde gehiagotan eta ez da argi azaldu ustez kutsadura konpondutako ordenadoreei ez ote dien sakonean “bonba” gehiago utzi

beranduago zartzeko zain. Leherketa, gainera, fisikoa ere gerta liteke. Ordenagailuok produkzio sistemen kontrola daramatenez, horien nahasketak ekar ditzake makinaren indarra dela medio era askotako hondamendiak.

Justu Iranen kontrako atakea aipatzen zen egunetan Amerikako Estatu Batuetako armadak *Cyber Storm III* (Ziber Ekaitza III) jardunaldiak burutu dituela idatzi du Beaumontek. “Jardunaldiak” itzuli dugu ingelesezko *exercise* baina hizkera militarra erabiliz “maniobrak” esan genezakeen. *Cyber Storm* horretara militarrek 60 erakunde pribatu gonbidatu omen dituzte, banku, korporazio kimiko, nuklear, energiazko eta teknologiazkoak direla. Ariketaren

mamia izan da aurre egitea AEBetako 1.500 punturen kontra etsaiek abiatutako eraso bateratuari. Emaizten berri ez dute eman militarrek.

Washingtoneko Centre for Strategic and International Studies erakundeko James Lewisi galdetu dio ziber gerraz kazetariak eta honen erantzuna: “Ziber gerra heldu da. Aireplanoak asmatu ziren garaian bezalatsu gaude, nahi eta nahi ez norbaitek hasi behar zuen hegazkinetatik bonbak tiraka. Orain militarrek arsenaletan ziber gerrak abiarazteko munizioak ere edukiko dituzte. Dagoeneko bost badira horretarako gai direnak, tartean Errusia eta Txina”. Gehi Israel, AEB eta Erresuma Batua, horra bostekoa.

Gerrako lubaki berri hauen ezau-garrietako bat omen da, leherkariak kamuflatuta luzaroko “kuluxkan” uzteaz gain, Internet bidez posible dela arerioaren makinak manipulatzea beren buruak suntsitu ditzaten.

AEBetako militarrek Pentagonoan sortu berri dute US Cyber Command atala, buruzagitzan Keith Alexander jenerala ipinirik. Hark esan berri du amerikarrek Stuxnet bezalako harren baten hortzakada noizitea denbora kontua dela.

Berrikitan, Alexander jenerala Washingtoneko konbresa deitu zutenean, parlamentariei azaldu omen zizkien ziber gerran azken hiru urteotan gertatu diren aldaketa handiak, tartean Errusiak 2007an Estonia eta 2008an Georgia atakatu izana.

Israelek AEB eta NATOren laguntzaz Iran eraso behar omen zuen joan den udan. Agian Stuxnet zen eraso eta ez da amaitu. ■



ZINKUNEGI OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Santi Leone

UPNren alde

Urte batzuk dira elkarrizketa irakurri nuela, eta oraindik ez zait oroimenetik lekutu. *Txantrean auzolan* aldizkarian argitaratu zen, hau da, Iruñeko Txantrea auzoan kalera- tzen den aldizkarian. Elkarrizketatua, auzoko bizilagun bat, adinean aurreratua; helburua, haren bizitzari errepasso ematea eta, bidenabar, Txantreakoa izatearen harrotasuna erakustea. Memento batean, kazetariak haren seme-alabez galdegin dio txantrearrari, eta hark, bi seme-alaba (edo bi seme, ez naiz sobera ongi oroitzen) zituela erantzundakoan, hauxe gaineratu du: “Biek hobera egin dute, bata Iturrama auzoan bizi da eta bertzea, Donibane auzoan”. Kazetariak, letran juntadura hutseko baina gogoan kausa-ondoriozko esaldi horrek daukan ironia inplizituari ezikusiarrena egitea erabaki bide zuen, eta, bertze galdera bat eginez, aitzinera segitu zuen.

Erantzun hura gogora etortzen zait, ezinbertzean, PSNko kideak hedabideetan ikusten ditudan bakoitzean. Hura Txantreaz harro zegoen bezala, hauek ere harro daude sozialismoaren tradizioaz, alderdiaren ibilbideaz eta ezkerreko balioez. Haatik, haren seme-alabak auzo ustez hobeetara alde eginak ziren bezalaxe, azken bolada honetan gure sozialistek ere hobetu egin dute beren estatusa, eta eskuinaren eskutik dabilta beti, behin ere hutsik egin gabe.

Egunen batean, eskerrak eman behar-ko genizkioke UPNri. Eskerrak, anbiguo- tasunik gabeko arerio baten irudia osatu duelako. Hau da, UPN arerio maltzurra, intolerantea, tranpatia, gupidagabea, oportunista, ezjakina eta gogaikarria izan da eta da, baina ez du sekulan zalantzara-ko zirritu ñimiñorik ere utzi. Ez, adibidez, gizarte politikari dagokionez (krisialdi honetan Miguel Sanzek adierazi du tonta-keria hutsa dela gehien dutenei zergak igan nahi izatea eta, gainera, hori egiteko- tan, lehenik jakin beharko genukeela zer ote den aberatsa izatea). Ezta kulturaren ere (uztailean, Paz Prieto Iruñeko kultura



JOSU SANTESTEBAN

zinegotziak erran zuen, zenbaiten kritikei ihardetsi nahian, Sanferminetan artista handiak ekartzen direla Iruñera, eta zerrendatxo bat ere egin zuen: Bertin Osborne, Georgie Dann, Luis Aguile, Manolo Escobar...). Ezta euskarari dago- kionez ere (ikusi bertzerik ez da nor izan diren hizkuntza politikaren arduradunak eta haien jarrerak euskararekin). Esker mila anitz, erran beharko genieke. Esker mila, politika horiek guziek argi eta garbi erakutsi digutelako etsai zaituzteguna, *Diario de Navarra*ko artikulu guziek duda izpi- rik gabe ez gaituztela maite era- kusten diguten bezala.


Egunen batean, UPNri eske-rrak emandakoan, edo apika ema- tearekin batera, PSNren eragina gure historia hurbilean (Espainia-ko Trantsiziotik hona, guti goiti-beheiti) serio aztertzen eta balo- ratzen hasi beharko genuke. Zer dela-eta ez zen inoiz abian jarri Espainiako Konstituzioko lauga- rren xedapen iragankorra. Nori esker betikotu den UPN bote- rean. Nork saldu zuen aldaketa- ren agindua, geroago, otzan- otzan, betiko egoera luzatzeko.

Egunen batean, onartu egin beharko genuke bakarrik gaudela, gu, ez dakit bada, abertzaleok, euskaldunok, lizentziarik gabeko irratia- k entzuten ditugunok, telebista hautatu dugun hizkuntzan ikusi ahal izateko LTDa itzali behar dugunok, gure kartelak grisez margoturiko letra txikietan –inoiz beltzez marrazturiko letra handietan– ira- kurri behar ditugunok, zer garen eta zer ez garen bertzek erranda dakigunok, *Berria* eta ARGIA “bertze komunitate bate- tik” eta Tele5 eta Antena3, aldiz, “gure naziotik” jasotzen ditugunok. Onartu, eta indarrak biltzeko lanean hasi.

Argi baitago, bertzenaz, zein den gera- tzen zaigun alternatiba: PSNren zain ego- tea. Baina susmoa dut haren hautesleek, Txantreako kazetari hark bezala, ezikusia- rena eginen diotela, behin berri, sozialis- tek UPNren aurka egindako diskurtso guziek duten ironiari. ■

Egunen batean, onartu egin
beharko genuke bakarrik gaudela,
gu, ez dakit bada, abertzaleok,
euskaldunok, lizentziarik gabeko
irratia- k entzuten ditugunok, (...)
zer garen eta zer ez garen
bertzek erranda dakigunok...

ASTE HONETAKO zozketa



Atxurra Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Arronategi auzoa, z/g
Bermeo, BIZKAIA

www.hotelatxurra.com

1



Zientziaren kutxagunea

4 harpidedunentzat
bina sarrera

ikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.miramón.org

2



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

3



Gasteiz Big Band Bing Bang!

5 CD opari

Soraluze GIPUZKOA

www.hotsak.com

4



Gartxot

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2246. Argia)

ANDRA MARI JATETXEA

- Imanol Ugarte Murua (Oñati)

AQUARIUM

- Peli Goia Escudero (Hernani)
- Aiora Azagirre Garitagoitia (Bilbo)
- Osane Larrañaga Muguruza (Zestoa)
- Olatz Arruabarrena Izaguirre (Errenteria)

ESAIT

- Begoña Urreisti Esnal (Mutriku)
- Miguel Uriarte Ballarena (Barañain)

COOL CIRCUS

- Patxi Arostegi Jimeno (Bilbo)
- Rafael Gomez Urbiria (Donostia)
- Felipe Iruretagoiena Elortza (Zarautz)
- Edurne Lazkanoiturburu Manterola (Hondarribia)
- Iker Urkia Martinez de Lahidalga (Aretxabaleta)

ARTEZ

- Orkli S.Coop. (Ordizia)
- Jose Mari Goiburua (Donostia)
- Xabier Larrañaga Gisasola (Markina-Xemein)
- Lurdes Ulazia Aizpurua (Gabiria)
- Edurne Arrizabalaga Basterretxea (Ondarroa)

PARTE HARTZEKO

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea



Bazen behin...

Mahai-jolasa

4 ZAILTASUN MAILA

- Hasiberriak
- Jarraitzaileak
- Adituak
- Profesionalak



Galdera-erantzunak
bost ataletan banatuta:

- Zirkulazio-aparatua
- Nerbio-sistema
- Digestio-aparatua
- Inmunitate-sistema
- Gaixotasunak

bizitza

2.200 galdera giza gorputzari buruz



2.200 galdera giza gorputzari buruz

Bazen behin...
bizitza

Familiarekin modu kooperatiboan jolasteko

39€

Harpidedunentzat

35€

Eskaerak: 943 36 86 61
info@luditoys.com

Ludi**toys**

www.luditoys.com

"Egin jolas giza gorputzari buruz
beti jakin nahi izan duzuna ikasiz"